Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y TRABAJO SOCIAL

**Gradu Amaierako Lana**

**2019/2020**

---

# Maskulinitateei eta gizonen taldeei egindako hurbilpena Gizarte Langintza feministatik. Bizkaiko gizon-taldeen kasua aztertuta.

---

Ikaslea: Itxaso Lorenzo Llona

Zuzendaria: Edurne Aranguren Vigo

Deialdia: 2020ko uztaila

CC BY NC SA

**AURKIBIDEA**

Sarrera 4

1. Aurre galderak, hipotesiak eta helburuak 6

1.1. Aurre galderak 6

1.2. Hipotesiak 8

1.3. Helburuak 9

2. Metodologia 11

3. Marko teorikoa 13

3.1. Maskulinitateen bilakaera 13

3.1.1. Maskulinitate terminoaren sorrera 15

3.1.2. Maskulinitate hegemonikoaren krisia 17

3.1.3. XXI. mendeko maskulinitate eredu berriak eta hauen esanahia 18

3.2. Maskulinitate krisiaren ondorioak 20

3.2.1. Ondorio sozialak eta estatistikak 20

3.2.2. Gizarte Langintza feministatik planteatzen ari diren estrategiak 28

3.2.3. Gizonen ekimenak ondorio sozialei aurre egiteko 32

3.3. Maskulinitateak eta feminismoa 34

3.3.1. Feminismoa maskulinitate berriei begira. 34

3.3.2. Gizonen ikuspuntua feminismoaren aurrean 35

3.3.3. Feminismoaren ahultasunak maskulinitate berriei begira 37

3.4. Gizonen taldeak 39

3.4.1. Talde motak eta hauen bilakaera 39

3.4.2. Bizkaiko gizonen taldeen azterketa 43

3.4.3. Bizkaiko taldeek barrutik emandako esku-hartze sozialak. 46

4. Analisia 49

4.1. Maskulinitate eredu berrien pertzepzioa gizonengan 49

4.2. Maskulinitate berrien eta feminismoaren arteko harremana 51

4.3. Gizonen pribilegio eta ahultasunei buruz egindako hausnarketak 53

4.4. Bizkaiko gizon-taldeen barruko ezagutza eta funtzionamendua 54

4.5. Gizarte Langintzatik egindako esku-hartzeak gizonekin lan egiteko 57

Ondorioak 59

Bibliografia 64

Webgrafia 70

Eranskinak 72

1. Eranskina: Profilen taula 72

2. Eranskina: Ritxar Baceteri egindako elkarrizketaren gidoia 73

3. Eranskina: Piper Txuriak taldeko kideari egindako elkarrizketaren gidoia 76

4. Eranskina: Zipriztintzen taldeari egindako elkarrizketaren gidoia 79

5. Eranskina: Gizon Ekimena taldeari egindako elkarrizketaren gidoia 82

**Sarrera**

Gradu Amaierako Lan hau ikerketa batean oinarritzen da. Ikerketa honen helburu nagusiena maskulinitate berriek eta gizonen taldeak aztertzea da Gizarte Langintza feministaren ikuspuntutik abiatuta. Ikerketa honen fokua Bizkaiko gizonen talde ez mistoetan jarriko da. Maskulinitateen gaia jendartean berria den gai bat denez, garrantzitsua da Gizarte Langintzaren ikuspuntutik ikertzea, are gehiago Gizarte Langintza feministatik. Feminismoak arlo desberdinetan aplikatu izan da, baina honen aurrerapena egiteko, beharrezkoa da fokua maskulinitate berrietan eta gizonengan jartzea. Emakumeak eta gizonak elkarrekin berdintasuna lortzeko ibilbidea osatzen dutelako.

Ikerketa hau egitearen arrazoia gizonen ikuspuntua feminismoaren aurrean zein den aztertzea izan da. Gizonek kolektibo bat osatzen dutelako eta Gizarte Langintzatik kolektibo horrekin esku-hartzeko beharra agertu izan delako. Nire praktikak Bilboko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren barruan egokitu izan dira. Zerbitzu horretan bizitako errealitatea zera izan da: genero indarkeria jasan duten emakumeen kasuek foku nagusia hartzen dute Gizarte Langintzatik esku-hartzea egiterakoan. Hala ere, arazo bat detektatu izan da, emakumearekin esku-hartze zuzena egiten den heinean, gizona alde batera uzten da. Honek eragiten du genero indarkeria fenomenoa behin eta berriz ematea, nahiz eta emakumeen ahalduntzean esku-hartuz. Izan ere, gaur egun oraindik ez daude esku-hartze handirik Gizarte Langintzatik gizon kolektiboan oinarritzen direnak. Honek errealitate baten aspektu desberdinak agerian uzten ditu: gizonak ez dira kolektibo bezala identifikatzen Gizarte Langintzaren arloan, gizona generoa duela ez da kontuan hartzen, generoa aztertzen denean bakarrik emakumeengan jartzen da fokua eta azkenik, Bizkaia mailari dagokionez badirela gizonak feminismoaren ideologia jarraitzen dutenak maskulinitate hegemonikoa deseraikitzeko ahaleginean eta maskulinitate berriak deritzonak sustatzeko. Horregatik, ikerketa honen arrazoiak aipatu izan diren aspektu guztiak jorratzea da, gizonari feminismoaren borrokan paper aktiboa emateko eta Gizarte Langintzatik gizonarekin lan egiteko esku-hartzeak garatzeko. Etorkizuneko Gizarte Langile profesional bezala nire motibazio pertsonala esku-hartzeko feminismoaren ideologia erabiltzea da eta motibazio profesionala genero indarkeria kasuak identifikatzean gizon profilaren diagnostiko bat burutzea da, diagnostiko horrekin gizona aztertu eta esku-hartu beharreko subjektu aktiboa bihurtzen delako.

Zailtasun asko sortu dira ikerketa hau burutzeko, martxoaren 13an alarma-egoeran sartu ginen Covid-19 birusa dela eta. Hala ere, metodologia egoerara egokitu egin da eta aurrez aurre egin beharreko elkarrizketak online izatera pasatu izan dira. Metodologiari dagokionez, lehenengo mailakoa elkarrizketa sakona eta talde bilera teknikak erabili egin dira, egoerara egokituta eta bigarren mailako informazio ituri bezala gaian sakontzeko dokumentuen azterketa egin da.

Azkenik, aipatu behar da ikerketa honek atal desberdinetan banatuta dagoela. Hasiera batean ikerketa ardazteko aurre galderak, hipotesiak eta helburuak zehaztu izan dira. Ondoren, metodologiaren errealizazioari aipamen berezia egiten zaio lehenengo eta bigarren mailako teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztuz. Hirugarren atalean, bigarren mailako dokumentuen azterketa teknika abian jarri izan da, maskulinitateen eta gizon-taldeen gaiaren kontzeptu nagusiak aztertuz. Laugarren atalean, analisia atalari ekin zaio, marko teorikoan eta lehenengo mailako elkarrizketa sakonen eta talde bilera tekniketan jasotako informazioa sintetizatuz. Azken atalari dagokionez, ikerketa osoan zehar aztertutako informazioaren ondorioak aurkeztu izan dira aurretik aipatutako hipotesiak kontrastatuz. Ikerketan kontsultatu izan diren dokumentuen zerrenda bibliografia atalean agertzen dira eta Internetetik eskuratutako informazioa webgrafia atalean. Informazio lagungarria bezala erabili egin diren elkarrizketen eta talde bileren gidoiak eranskinen atalean jasota daude.

## 1. Aurre galderak, hipotesiak eta helburuak

Atal honetan, ikerketaren oinarriak izan diren aldagaiak aurkeztu egingo dira, hauen artean: aurre galderak, lanaren hipotesiak eta helburuak.

### 1.1. Aurre galderak

Ikerketa txostenarekin hasi baino lehen, garrantzitsua da ikustea lana hasi aurretik zeintzuk izan dira sortutako galderak. Galdera hauek ikerketaren norabidea zehazten eta mugatzen dutelako.

Galderei dagokienez, kategoria desberdinak banatu izan dira, dimentsio eta aldagai desberdinei erreferentzia egiten dietelako.

Maskulinitateak XXI. mendean:

1. Maskulinitateari dagokionez zeintzuk dira XXI. mendean ematen ari diren eredu berriak?
2. Zer esanahia dauka gizona izatea XXI. mendean?
3. Gizonen maskulinitate hegemonikoa krisian dago?

Gizarte Langintza feministaren ikuspuntua:

1. Gizonek pribilegioak galtzea berdintasunaren aldeko estrategia bat suposatzen du?
2. Zeintzuk dira Gizarte Langintza feministaren arloan etorkizun batean erabili beharreko estrategiak gizon kolektiboarekin esku-hartzeko?

Gizonen ikuspuntua feminismoaren aurrean:

1. Nola eragiten die gizonei emakumeen ahalduntzea?
2. Zergatik gizonen gehiengoa ez da berdintasunaren alde agertzen?
3. Feminismoa ikusi ezin duten gizonak daude?
4. Zein da feminismoa ikusi ezin duten gizonen iritzia?
5. Feminismoa inklusiboa da?

Berdintasunaren aldeko gizon taldeak:

1. Zeintzuk dira gizonen interesak?
2. Gizonen interesak ez Patriarkalak izan ahal dira?
3. Gizonei berdintasuna interesatzen zaie?
4. Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak existitzen dira Bizkaian?

Kategoria desberdinetan banatutako galdera hauek hasiera ematen diote aurrerago zentsua emango dion gaiari, zeren eta badira galdera hauek eta asko gehiago oraindik erantzun gabe daudenak.

### 1.2. Hipotesiak

Atal honetan aurreko galderak kontuan hartuta ikerketaren hipotesiak definitu egingo dira. Hipotesiak ikergai den fenomenoari buruz ikertzailearen ikuspuntua erakusten duten baieztapenak dira (Juaristi, 2003). Lan honen hipotesia nagusiena aztertuko den gaiarekin bat etorri behar da, hau da, aztergai nagusia maskulinitate berriek eta Bizkaiko gizonen taldeei Gizarte Langintza feministatik egindako hurbilpena kontuan hartzea da. Aurre galderen kategoria bakoitza lotuta egongo da hipotesia bakoitzarekin.

Beraz, planteatu diren aurre galderak kontuan hartuta, ikerketa lan honi dagozkion hipotesiak honako hauek dira:

**$H_1$:** Gizonen maskulinitate hegemonikoa krisian dago, gaur egun XXI. mendean, maskulinitateei buruzko eredu berriak ematen ari direlako gizonen artean.

**$H_2$:** Gizarte Langintzak gizonekin esku-hartzeko estrategiak sortu behar ditu emakumeen eta gizonen berdintasun parekoa emateko.

**$H_3$:** Emakumeen eta gizonen berdintasuna emateko, gizonek haien pribilegioaz ohartu behar dira, ondoren eraldatzeko.

**$H_4$:** Feminismoari dagokionez, nahiz eta inklusiboa izateko teoriak aplikatu, oraindik ez du bat egin gizonen eskaerekin, hauen ikerketak kolektibo bezala bigarren maila batean kategorizatuz.

**$H_5$:** Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak existitzen dira Bizkaia mailan eta hauek feminismoaren teoria eta praktikarekin bat datoz.

Ikerketa lan honen hipotesiak XXI. mendeko maskulinitate eredu berrian, teoria feministan maskulinitate berriei begira, berdintasunaren aldeko Bizkaiko gizonen taldeetan, gizonen pribilegioetan eta Gizarte Langintzaren esku-hartzeko estrategietan oinarritzen dira. Beraz, esan daiteke hipotesiak identifikatuta ikerketaren oinarria honako hau izango dela: Zein da Gizarte Langintza feministaren aldetik sortu behar diren estrategiak maskulinitate berriekin eta Bizkaiko gizonen taldeekin esku-hartzeko.

### 1.3. Helburuak

Azpiatal honi dagokionez, lanaren helburuak zehaztu egingo dira. Horretarako, helburuak bi kategoria desberdinetan banatu egingo dira; helburu orokorrak eta helburu espezifikoak. Ikerketaren helburuek eragin handia dute diseinua zehazterakoan (Juaristi, 2003). Hau da, helburuetara bideratzen gara zenbait ekintzetan oinarritzen den prozesu baten bidez, zenbait baliabideekin eta leku eta denbora jakin batean. Atal honetan helburuen kategorizazioa taula baten bidez adierazi egingo da.

| HELBURUAK | |
|---|---|
| **OROKORRAK** | **ESPEZIFIKOAK** |
| 1. Maskulinitate berriek XXI. mendean sortu dituzte aldaketak aztertzea. | 1.1. XXI. mendeko maskulinitate terminoa definitzea. |
| | 1.2. Maskulinitate berrien ereduak zeintzuk diren aztertzea. |
| | 1.3. Maskulinitate hegemonikoaren krisia aztertzea. |
| 2. Gizarte Langintza feministaren esparruan gizonak ikerketa adar bat izatea. | 2.1. Gizonak kolektibo espezifikoa bezala ikertzea. |
| | 2.2. Gizonen pribilegioak Gizarte Langintzaren ikuspuntutik zeintzuk diren aztertzea. |
| | 2.3. Gizarte Langintza feministatik gizonekin lan egiteko estrategia desberdinak erabiltzea. |
| 3. Bizkaiko gizon kolektiboaren iritzia jasotzea feminismoaren aurrean. | 3.1. Bizkaiko gizonen profil desberdinak elkarrizketatzea. |
| | 3.2. Gizonei feminismoari buruzko galderak aurkeztea. |
| 4. Berdintasunaren alde agertzen diren Bizkaiko gizonen taldeak ikertzea. | 4.1. Berdintasunaren aldeko Bizkaiko gizonen taldeetan barneratzea. |
| | 4.2. Gizonen interesei arreta jartzea. |
| | 4.3. Berdintasunaren aldeko Bizkaiko gizonen taldeek erabiltzen dituzten estrategiak ikastea. |

Taulan ikusten den bezala lau helburu orokor kontuan hartuko dira ikerketa aurrera eramateko. Helburu orokor bakoitzak helburu espezifikoak ditu gaia sakontasunez aztertzeko. Lehenengo helburuari dagokionez, ikerketa gaiaren hasieran aztertu beharreko teoriari garrantzia ematen dio. Hau da, gaur egun XXI. mendean maskulinitate berriek sortu dituzten aldaketak aztertzea. Helburu orokor honek hiru helburu espezifikoak ditu, hau da, helburu orokorra lortzeko helburu espezifikoak kontuan hartu behar dira; XXI. mendeko maskulinitate terminoa definitzea, maskulinitate berrien ereduak zeintzuk diren aztertzea eta eredu desberdinen barruan maskulinitate hegemonikoaren krisia aztertzea. Bigarren helburuari dagokionez, Gizarte Langintza feministaren esparruan oinarritzen da, gizonak ikerketa adar bat izatea. Helburu orokorra lortzeko helburu espezifikoak kontuan hartu behar dira: gizonak kolektibo espezifiko bezala aztertzea, gizonen pribilegioak aztertzea eta Gizarte Langintza feministatik lan egiteko estrategia desberdinak erabiltzea. Hirugarren helburu orokorra Bizkaiko gizon kolektiboei dagokio. Helburu hau beste bi helburu espezifiko ditu: Bizkaiko gizonen profil desberdinak elkarrizketatzea eta gizonei feminismoari buruzko galderak aurkeztea. Helburu hau lortzeko sakoneko elkarrizketa teknika aztergai den fenomenoari buruz ideia orokorra ematen duen teknika eta talde bilera informazioa lortzeko moderatzailearen eta taldekide batzuen artean egiten den eztabaida teknika erabiliko da (Juaristi, 2003). Laugarren eta azken helburu orokorra berdintasunaren alde agertzen diren Bizkaiko gizonen taldeak ikertzea da. Helburu orokor hau beste hiru helburu espezifikoak ditu: berdintasunaren aldeko Bizkaiko gizonen taldeetan barneratzea, talde horretan dauden gizonen interesei arreta jartzea eta talde horiek erabiltzen dituzten estrategiak ikastea. Laugarren helburuan hirugarren helburuaren teknikak erabiliko dira.

## 2. Metodologia

Atal honetan, lanaren errealitatea biltzeko erabili diren estrategiak eta baliabideak azaldu egingo dira. Ikerketaren metodologiari dagokionez, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili egingo da. Aipatu beharra dago metodologia kualitatiboa ikerketan gehiago erabiliko da, nahiz eta metodologia kuantitatiboan ere oinarritu.

Maskulinitate gaia orokorregia denez, beharrezkoa da azaltzea zeintzuk izango diren mugak eta zertan oinarrituko den. Ikerketa lanari dagokionez, alde batetik, Bizkaiko lurraldean kokatu egingo da, Bilboko hiria oinarri bezala hartuta, baina ere ondoko herriak (Ermua, Santurtzi, eta Portugalete). Bizkaian zehar berdintasunaren alde aurkitzen diren gizon talde ez mistoetan jarriko da arreta, hauek dituzten ikuspuntuak eta lan egiteko moduak kontuan hartuz eta elkarrizketa sakona teknika erabiliz, kontuan hartuta Covid-19 egoera, aldaketa batzuk egongo dira eredu formalari dagokionez. Pertsona bakarra elkarrizketatzean elkarrizketa sakonak bideo deiak egiteko aplikazioen bidez egingo dira (Skype, Jitsi) eta talde osoak parte-hartzearen aukera izateko, taldeko bilerak sortu egingo dira aurreko aplikazio berdinak erabilita, zeinetan gizonen talde ez mistoen lau eta bost partaideek parte-hartuko dute. Lagina txikitzeko bakarrik talde horietako gizon parte-hartzaileekin izango da azterketa, eta kasuaren arabera talde horietara heltzea beharrezkoa izan den pertsona ere, honi elkarrizketa sakona teknika ere aplikatuz. Elkarrizketa sakona eta talde bilera tekniken bidez, gizon talde hauek berdintasunaren aurrean erabiltzen dituzten estrategiak kontuan hartuko dira eta etorkizuneko Gizarte Langintzaren arloan gizonak kolektibo espezifikoa bezala ikertzeko hartu behar diren pautak zehazteko.

Ikerketari hasiera emateko bigarren mailako iturrietan jarri da oinarria, hau da, marko teorikoa atalean. Lan honek duen sakontasuna hobeto ulertzeko dokumentuen azterketak txostenean zehar ikertuko diren gaien eta azpigaien definizioak emango ditu. Dokumentuen azterketari dagokionez, maskulinitate gaian eta Bizkaiko gizonen talde ez mistoen gaian sakontasuna eta jakintasuna bermatu duten autoreen testuak aztertu izango dira. Horretarako, Ritxar Baceteren (2017) testutik ateratako bibliografia izan da erreferentzia bezala hartu izan dena, autore desberdinak eta gaian adituak zirenak gehituz.

Juaristi (2003) autoreak ikerketetan eman behar diren pausuak “*Gizarte ikerketarako teknikak*” testuan aipatzen ditu, autore honek nahiz eta bi pausu baino gehiagotan arreta

jarri, lan honetan zehar fokua bakarrik bitan jarriko da, zeinak beharrezkoak dira ikerketaren osotasun egoki emateko. Pausuak honako hauek dira: lehenengo pausuari dagokionez, laginaren tamaina zein den mugatu eta zehaztu behar da. Bigarren pausuari dagokionez, ikerketa txostenean zehar erabiliko diren tekniken aukeraketa egin behar da, hauek erabiltzeko arrazoiak azalduta daudela. Ikerketa txostenean zehar teknika desberdinak erabili izan dira maskulinitate gaiaren azterketa bere dimentsio anitzetan aztertzeko. Lehenengo mailako tekniketan, elkarrizketa sakona teknika eta talde bilera teknika azpimarratzen da. Bi elkarrizketa sakon egin dira, bata maskulinitateen gaian aditua den Gizarte Langile batekin eta bestea Bilboko *Piper Txuriak* taldeko kidearekin. Elkarrizketa hauek pertsonaren iritzia osotasunean jasotzeko balio dute, aurrez prestatutako galdera zuzenen bitartez. Talde bileren kasuan, bi gizonen talde ez mistoekin burutu izan da. Lehenengo talde bilera Ermuako *Zipriztintzen* taldearekin eman da, non lau gizon parte-hartu dute. Bigarren talde bileraren kasuan, Santurtziko *Gizon Ekimena* talde ez mistoarekin egin da, bilera honetan taldeko hiru gizon parte-hartu dute. Bigarren mailako teknika bezala, aurretik azaldutako dokumentuen azterketa erabili izan da autore desberdinen iritzia eta teoriak ulertzeko, haietaz jabetzeko eta aztertzeko. Bigarren mailako teknika marko teorikoan ikusgarria da. Metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa bezalako faktoreak kontuan hartu izan dira, hauek dituzten teknika propioetan arreta jarriz, hau da, metodologia kuantitatiboa marko teorikoaren atal bakarrean erabili izan da eta analisia atalean metodologia kualitatiboarekin elkarrizketa sakonak eta talde bilera teknikak erabili izan dira.

## 3. Marko teorikoa

Ikerketaren aurre galderak, hipotesiak, helburuak eta metodologia zehaztu ondoren, maskulinitateen gaiari buruz idatzita dagoen informazioa bildu egingo da atal honetan. Horretarako, maskulinitateen inguruan idatzita dauden liburuak, artikuluak, txostenak eta ikerketak ezagutu eta aztertu egingo dira.

Ikerketa honekin maskulinitateen bilakaera, maskulinitatearen krisiak ekarri dituen ondorioak, maskulinitateak eta feminismoa elkarri duten begiradak eta gizonen taldeak bere osotasunean aztertu egingo dira Bizkaiko taldeetan fokua jarriz. Hau kontuan izanda, atal honetan landuko diren azpi-atalak honako hauek izango dira: maskulinitate terminoaren sorrera, maskulinitate hegemonikoaren krisia, XXI. mendeko maskulinitate eredu berriak eta hauen esanahia, maskulinitatearen krisiak ekarri dituen ondorio sozialak eta estatistikak, Gizarte Langintza feministatik planteatzen ari diren estrategia berriak, gizonen ekimenak ondorio sozialen aurrean, feminismoaren ikuspuntua maskulinitate berriei begira, gizonen ikuspuntua feminismoaren aurrean, feminismoak dituen ahultasunak maskulinitate berriei begira, gizonen talde motak eta hauen bilakaera, Bizkaiko gizonen taldeen azterketa eta azkenik, Bizkaiko gizonen taldeek barrutik ematen dituzten esku-hartze sozial motak landu egingo dira.

### 3.1. Maskulinitateen bilakaera

Lan honetan murgiltzeko, beharrezkoa da maskulinitate kontzeptua noiztik eta nondik sortu egin den azaltzea, horregatik atal honetan maskulinitateen bilakaerari jarriko zaio arreta. Maskulinitatearen bilakaeran sakontzeko, aurretik beharrezkoa da sexua, generoa eta androzentrismoa bezalako kontzeptuak azaltzea, hauek funtsezkoak direlako ikergaiaren oinarria azaltzeko.

Sexuari dagokionez, biologiari erreferentzia egiten dio, hau da, gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasun fisikoei (Varela, 2013). Sexua izaki bizidunetan indibiduo arrak eta emeak bereiztea ahalbidetzen duten ezaugarri organikoen multzoa da (Etxeberria, 2009). Aldiz, generoa emakumeei eta gizonei kulturalki eraiki zaizkien arau eta jarrerei erreferentzia egiten die. Feminismoaren teorian genero kontzeptua kategoria nagusiena da. Generoaren ideia “femeninoa” eta “maskulinoa” terminoak kulturalak bezala eta ez naturalak edo biologikoak bezala definitzen direnean sortzen da (Varela,

2013). Femeninoa eta maskulinoaren dikotomia kulturala ez da nahikoa emakumeen eta gizonen arteko banaketa azaltzeko eta ulertzeko, emakumea eta gizona izatea izaki bizidunen asmakizuna delako. Maskulinitatea ez da gizonen ondarea, feminitatea emakumeena ez den bezala. (Bacete, 2017). Maskulinitatea eta feminitatea ikasketa kulturalak eta eraikuntza sozialak dira (Lomas, 2003). Gizona izatea ez da kategoria biologiko bat, emakumea izatea kategoria biologikoa ez den bezala. Gizona eta emakumea izatea pertsonen identifikazio prozesuen barruan eta hauen estruktura neurologikoen sorkuntzan jendartearengandik ikasita daudenak eta genero sistema bitar baten baitan kokatzen direnak dira. Beraz, femeninoari eta maskulinoari atxikitako gaitasunak eta hortaz, emakume eta gizon espezifikoei, ez dute loturarik jaiotzen diren sexuarekin, baizik eta bere erabileraren arabera indartzen diren gaitasun naturalak dira (Alonso, Aranguren eta Bacete, 2019). Generoa zerbait indibiduala bezala ikusten bada, ez du "genero rolen" kontzeptutik aurrera egingo, baina eraikuntza soziala, historikoa eta botereduna bezala aztertzen bada, emakumeen eta gizonen arteko erlazio bezala ulertu ahal izango da. Hala ere, nahiz eta erlazio soziala bezala kontsideratu, ikuspegi dikotomikoa sostengatzean (emakumea/gizona) ez du uzten pertsonen arteko genero aldaketak eta horien ikuspegi anitzak detektatzeko (Minello, 2002). Alonso (2016) autorearen arabera, oinarrizko akatsa detektatu izan da generoaren ikuspuntua kontuan hartu egin denean; generoa eta sexua kontzeptuak nahastu egin dira. Perry (2018) autorea bat dator adierazten duenean, maskulinitateari buruz hitz egitearen arazoa, sexua (arra) eta generoa (maskulinoa) kontzeptuak nahastea izan dela.

Androzentrismo kontzeptuak erreferentzia egiten dio mundua ikuspegi maskulinotik ikusteko eta ulertzeko gaitasunari, gizona erdigunean jarriz neutro, unibertsal eta errealitatearen estandar absolutua bezala. Androzentrismoak errealitatea nahastu eta deformatu egin du (Varela, 2013). Maskulinitate hegemoniko toxiko tradizionalista androzentrismoa erdigunean jarri du, bere printzipioak neutroak bezala ezarriz: agintzeko ahalmena, ordenamendua edo indarkeria. Eta maskulinitate horretatik at agertu izan diren eredu desberdinak ezabatuz. Gizon zuria, heterosexuala eta maskulinitate hegemoniko tradizionala jarrera eredu unibertsal bezala adjudikatu izan da (Salazar, 2012). Feminismoa androzentrismoaren mitoa izan da, "gizona erdiguneko neurria" ideia eraitsi duelako (Bacete, 2017).

### 3.1.1. Maskulinitate terminoaren sorrera

Sexua, generoa eta androzentrismoa kontzeptuak behin definituta daudenean, maskulinitatearen bilakaeran sakondu ahal da. Maskulinitatearen bilakaeran murgiltzeko, beharrezkoa da jakitea zein izan den maskulinitate terminoaren sorrera. Aurreko atalean ikusi ahal izan den bezala, maskulinitatea feminitatea bezala, pertsona baten generoari atxikitutako eraikuntza kulturala da. Hala ere, maskulinitatea duela gutxi arte ez zen aztertzen, gizonek izaki bizidunak bezala jarraitzen dutelako ikusten haien burua ez soilik gizonak bezala (Bacete, 2017). Maskulinitatea genero erlazioen testuinguruan dauden praktika sozialen multzoa bezala definitu ahal da, Lomas (2003) autorearen arabera, maskulinitatea praktika sozial bat da botere erlazioekin lotura zuzena duena. Perry (2018) autoreak maskulinitatea horrela definitzen du: “La masculinidad es un conjunto de hábitos, tradiciones y creencias que históricamente se han asociado con ser hombre” (9.or.). Bestetik, Connell autoreak (in Lomas, 2003) adierazten du, korronte-literario nagusiek huts egin dutela gaiari buruzko zientzia berria sortzeko ahaleginean. Nahiz eta jendarte guztiek genero erregistro kulturalak izan, guztiek ez dute “maskulinitatea” kontzeptua definitu, ehun urte baino gutxiago dituen hitz bat delako. Maskulinitate terminoaren ikuskera desberdinak ulertzeko, jendarte horren errealitatea zein den aztertu behar da, hau da fokua ez da maskulinitate hori duten gizonengan jarri behar, baizik eta jendarte osoarengan (Jociles, 2001).

Maskulinitatearen terminoa definituta izanda, beharrezkoa da jakitea noiz sortu egin zen gai honi buruzko interesa. Hau da, gizonen eta maskulinitatearen eztabaida betidanik egon da, nahiz eta gaur egun arte ikertua ez izan. Michael Kimmel Carabí eta Armengol (2008) autoreek egindako elkarrizketan adierazten du maskulinitatearen ikerketak 70. hamarkadaren amaieran eta 80. hamarkadaren hasieran sortu zirela, emakumearen eta feminismoaren azterketen erantzun positiboa bezala. Feminismoaren markotik ateratako lehenengo ikerketek Amerikako Estatu Batuetan eta Latinoamerikan arrakasta handia izan zuten (Azpiazu, 2017). Urte horien hasieran, akademikoak adierazten hasten dira; maskulinitatea ere haiei eragiten diela. 1970. urtetik aurrera unibertsitate estatubatuarretan *Men's Studies*[1] deituriko txostenak agertzen hasten dira. Unibertsitateko ikerketa hauek “gizona izatearen” esanahia aztertzen dute (Minello, 2002; Connell, 2015; Alonso, 2016; Azpiazu, 2017). Carabí eta Armengol (2008) autoreek adierazten dute 80.

[1] Aipamena: *Men's Studies* euskaraz “Gizonen Ikerketak” esan nahi du.

hamarkadan maskulinitateei buruz egindako azterketetan soilik emakumeei jarri zitzaiela fokua. Horregatik, hamarkada horretatik aurrera gizonak diskurtso propioa garatzen hasten dira, pentsatzen dutena adieraztera emateko. Bestaldetik, Carolyn Dinssham autoreak Carabí eta Armengol (2008) autoreekin izandako elkarrizketan adierazten du gizon zuriak, normatiboak eta heterosexualak maskulinitatearen eztabaidei buruz betidanik idatzi egin duela, baina ez dituela eztabaida horiek aztertu ezta arazo bihurtu ere. Ideia honekin bat dator Lynne Segal autoreak Carabí eta Armengol (2008) testuan adierazten duen bezala; gizonak ez daude exentu aztertuta izatera, horregatik, "*Gizonei zer gertatzen zaie?*" galdera sortzen da, gizon propioek erantzun behar dutena. 1980-1990. urteetan zehar maskulinitate berriei buruzko eztabaidak sortzen dira eta honekin gaiari buruzko interesa pizten da. Gizonek sortutako azterketek hainbesteko arrakasta izan zuten, non XX. mendea maskulinitateen sorreraren mendea bezala bilakatzen da (Segal in Carabí eta Armengol 2008; Azpiazu, 2017). Espainiako Estatuan maskulinitateei buruzko ikerketak ezarpen eta finkapen maila desberdina izan dute, hauen bilakaera berria bezala identifikatuz. Gaur egun oraindik, generoari buruzko ikerketen markotik, maskulinitateei buruzko ikasketak sortzen ari dira (Aresti, 2010).

Connell (2015) autorearen arabera maskulinitatea definitzeko lau eredu desberdin identifikatzen dira. Maskulinitate hegemonikoaren ereduak emakumeengan eta beste gizonengan boterea eta autoritatea gauzatzen du, Patriarkatuak jarritako estereotipoak legitimatzen ditu eta jendartean lider posizioa sostengatzen du. Gizonak eman behar duen erantzun egokia bezala definitzen da. Indar fisikoa gizonarengan gailentzen zuen garaian jaio zen (Perry, 2018) eta honen ezaugarri nagusiena besteen gainean boterea eta kontrola ezartzea da. Aldi orotan zalantzan dago eta indarkeriaren bidez behin eta berriz konfirmatzen da (Kaufman in Arango *et al.*, 1995). Gizonentzat oinarrizkoak diren balore, funtzio, jarrera, sinesmen, mito, estereotipo eta kultura determinatuen multzoa da eta jarduten duten gizonen boterea eta autoritatea eraginkor egiten ditu. Jarraitu behar den eredua bezala identifikatzen da; arra menderatzaile papera emakumearen gainetik jartzen du eta eredu hau betetzen ez duten beste gizonak baztertzen ditu (Alonso eta López, 2015). Maskulinitate tradizionalaren eraikuntza soziala zirraren deskonexioan oinarritzen da, hortaz ikaskuntza eta ez biologia izango litzateke jarrera toxikoen atzean dagoena (Bacete, 2017). Mendeko maskulinitatea, Connell (2015) autoreak definitu zuen bigarren maskulinitate mota da. Gizonek beste gizonak zaintzen dituztenean, zirraretan eta

sentimenduetan hanpadura jartzen dutenean eta feminismoarekin elkartasuna bezalako ezaugarriak adierazten dituztenean maskulinitate mota honetan sailkatzen zaie. Emakume jarrerak dituen maskulinitate ez legitimoa bezala eta orientazio homosexualarekin erlazionatzen da, gizon heterosexualei menderatzaile papera jarriz eta homosexualei menpekoa. Konplizea Connell (*Ibid.*) autoreak definitu zuen beste maskulinitate mota bat da. Dibidendu Patriarkalak disfrutatzen dituzten gizonak maskulinitate honen sailkapenean daude. Hau da, dibidendu patriarkalak esan nahi du kategoria honetan dauden gizon ez biolentoek eta etxeko lanetan parte-hartzen dutenak, emakumeen menpekotasunaz etekina ateratzen dutela. Gizon hauek ez dute haien pribilegioei buruz hausnartzen ezta emakume eta gizonen arteko desberdintasunei buruz ere. Eredu honek maskulinitate hegemonikoarekin erlazio zuzena du, nahiz eta zorroztasunez ez jarraitu. Azkenik, Connell (*Ibid.*) autoreak baztertuen maskulinitate mota definitu zuen. Kategoria honen barruan jendartetik baztertu izan diren gizonak sartzen dira. Maskulinitate menperatzaileak hegemonikoa eta konplizea izanda eta menpekoak talde etnikoak. Aurreko hiruren kasuan, maskulinitate ereduek generoari erreferentzia egiten zioten. Baztertuen sailkapenak gizonen arraza eta klase sozialak generoarekin erlazio zuzena du, non klaseen arteko borroka ematen da.

### 3.1.2. Maskulinitate hegemonikoaren krisia

Maskulinitatearen bilakaera osotasunean aztertzeko, beharrezkoa da honen krisia azaltzea. Horregatik, azpiatal honetan maskulinitate hegemonikoaren krisiari arreta jarriko zaio. Argitu beharra dago, krisia esaten denean, eredu hegemonikoaren krisia azpimarratzen dela ez maskulinitate eredu guztien krisia. 2000. urtean, Anthony Clare Erresuma Batuko psikiatra lehenengo izan zen maskulinitatea krisi egoeran zegoela adierazi zuena eta "maskulinitatearen krisia" definitu egin zuen (Segal in Carabí eta Armengol, 2008). Estatu Espainolean Josep Vicent-Marqués lehenengo gizona izan zen maskulinitatearen krisiari buruz hausnartzen hasi zena "*La alineación del varón*" artikuluan (Alonso eta López, 2015). Hala ere, Herrerak (2010) adierazten du maskulinotasunaren krisia Patriarkaturen historia osoan zehar eman dela. Emakumeen ahalduntze bakoitzaren atzetik, gizonen maskulinitatearen krisi bat dago. Connell (2015) autoreak maskulinitatearen krisia Patriarkatuak XX. menderen bukaeran izan zuen krisian kokatzen du. Krisiak gizonei identitatearen apurketa sentimendua eta subjektu aktibo bezala kokatzeko aukera ematen die (Connell in Lomas, 2003). Gizonen kasuan, aldaketa

hauek gaur egun haien identitate maskulinoan ematen ari dira eta gizon paperari zuzenean eragiten diote, hau errealitate bat da “maskulinitatearen krisia” izena hartzen duena (Alonso, 2016). Nahiz eta maskulinitatearen krisia XX. mendean hasi, XXI. mendeko krisirik handiena gizonen trantsizioan eta etorkizunean maskulinitatea definitzeko zalantzan oinarritzen da. Gizonak krisian daude, beraz haien maskulinitatea krisian dago, balio ez duen maskulinitate eredu baten trantsizioan eta eredu berrien bila. Emakumeek sortutako aldaketek sistema Patriarkala kolokan jarri dute, errealitate berria sortuz eta maskulinitate hegemonikoaren eredu tradizionala zalantzan jarriz. Beraz, argi dago maskulinitatearen krisia feminismoak sortutako aldaketen ondorio zuzena izan dela. Feministek “*Zer da gizona izatea?*” galdera azaleratu dute. Krisi honek dimentsio anitzak aurkezten ditu. Dimentsio hauek hobeto ulertzeko aurreko atalean azaldutako maskulinitatearen eredu hegemonikoa aztertu eta kolokan jarri behar da. Hala ere, krisi guztietan gertatzen den bezala, badira erresistentziak aldaketaren aurrean agertu izan direnak. Erresistentzia esplizitu horiek politikariekin zerikusia duten gizon batzuengan aurki daitezke (Trump, Putin eta Abascal) edo *Angry white men*[2] bezalako kanpainetan.

### 3.1.3. XXI. mendeko maskulinitate eredu berriak eta hauen esanahia

Maskulinitate terminoaren sorrera eta honek izan duen krisia behin aztertuta, azpiatal honetan XXI. mendean ematen ari diren maskulinitate berriak deituriko ereduak aztertu egingo dira, hauen esanahia hobeto ulertzeko. XXI. mendeko jendartean badira gizonak aitortzen dutenak maskulinitate Patriarkala haiekin bat ez datorrela, ez dira eroso sentitzen maskulinitate tradizional hegemonikoak atxikitu egin dien paperarekin eta ez daude prest Patriarkatuak ezarritako aginduak onartzera (Alonso eta López, 2015). Gizon horiek trantsitu egoeran daudenak, maskulinitate eredu zaharkitu batetik, jada ez dena existitzen, maskulinitate eredu berrien bila daude; elkarrizketa, aniztasuna eta eraldaketa bezalako faktoreak dituztenak (Bacete, 2017). Eredu berri hauei maskulinitate berriak deitu zaie (Azpiazu, 2017). Errealitate berria zera da; feminismoak maskulinitate eredu tradizionala, maskulinitate hegemoniko toxikoa deritzona, zalantzan jarri du. Feminismoak hartutako zalantzazko ikuspuntu honetatik, gizonen artean galdera berriak sortzen dira. Aztertutako ikerketek gizonak aldaketa garaian daudela eta hauen inplikazioa genero berdintasunean handiagoa dela adierazten dute. Azterketa hauek balioztapen berria eskatzen dute eta honekin batera aldaketa emateko estrategia berriak,

[2]Aipamena: *Angry White Men* euskaraz “Haserretutako Gizon Zuriak” esan nahi du.

maskulinitate tradizionalaren identitatean eragina eta adaketarako aukera bat suposatzen dute (Alonso eta López, 2015). Gizonen profil anitzak (hauen barruan, gizon zuria eta heterosexuala) hasi dira haien generoari buruzko eztabaidak sortzen modu kontziente eta boluntarioan. Gizon hauek haien jarreran eta identitatean aldaketak sortu nahi dituztelako (Alonso, 2016). Lozoya (2008) autoreak aipatzen du maskulinitateen sorrera 80. hamarkadan eman zenetik, gaur egun arte oraindik ez daudela lagungarriak izan zitezkeen identifikazio ereduak, feministen kasuan 70. hamarkadan hauen sorreran sufragistak izan zuten bezala.

Maskulinitatearen eredu berriek eta ikerketek, maskulinitateei buruz pluralean hitz egiten dute, nahiz eta jakin, menperatzen duen eredu hegemoniko bat existitzen dela. Ulertzen delako maskulinitateak anitzak direla eta ez dela eredu maskulino unibertsala existitzen, baizik eta identitate maskulinoen aniztasun heterogeneoa existitzen dela. Horregatik, ezin da maskulinitate bakar batean oinarritu, maskulinitate hegemoniko toxikoaren kasuan gertatu den bezala. Gizon desberdinen eta anitzen heterogeneitatea nabarmendu behar da, aniztasun hauei ikusgaitasuna emateko (Badinter, 1993; Alonso eta López, 2015; Connell (2015); Alonso, 2016; Azpiazu, 2017). Bacete (2017) autoreak azpimarratzen duen moduan, gizonak emakumeak bezala anitzak dira, beraz, ideia honi lotu behar zaio maskulinitatea, feminitatea bezala anitza dela. Simone de Beauvoir (2005) filosofoak feminismoari ekarpen nagusiena egin zion *Bigarren Sexua* liburuari dagokionez, autore honek emakumea ez dela emakume jaiotzen, baizik eta egin egiten da ideia plazaratu zuen. Beauvoir (*Ibid.*) autorea parafraseatzen eta Ritxar Bacete (2017) autorearen hitzak erreferentzia bezala hartzen, gizonaren kasuan berdina gertatzen da: gizona ez da gizon jaiotzen, baizik eta egin egiten da. Gizonek emakumeek bezala ikasi, naturalizatu eta hartu egin dute zer den gizona izatea.

Maskulinitatearen pluraltasunez gain, badago beste gai bat XXI. mendeko maskulinitate eredu berrietan behin eta berriz zalantzan jarri dena; hau da, gizonen pribilegioen gaia. Eredu berriek gizonen pribilegioak azpimarratu dituzte. Alde batetik, autore batzuek defendatzen dute berdintasuna lortzeko aurrerapausoen artean pribilegio hauen galera eman behar dela. Beste aldetik, pribilegioak Patriarkatuaren kostuak bezala identifikatu izan dira. Hona hemen autore desberdinen iritziak azaleratuta: Gizonen pribilegioak estrukturalak dira, hau da, gizonentzat pribilegioak ez dira merezimendu

bereziarengandik edo baldintza propioengandik eskuratu, baizik eta kulturalki gizonei eman zaizkie gizon hutsa izateagatik. Pribilegio hauek gizonak emakumeen aurrean abantaila egoeran kokatzen ditu (Bacete, 2017). Pribilegioak dituzten figura guztien kasuan gertatzen den bezala, pribilegio hauek ez dira ikusgarriak, horregatik “naturaltzat” hartzen dituzte (Bonino, 2000). Ordenamendu Patriarkala eraldatu arte ez da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna osoa izango. Horretarako, maskulinitate hegemoniko toxiko tradizionala berrikusi behar da, pribilegio maskulinoak zalantzan jartzeko (Salazar, 2012). Berdintasunean bizitzeko Bacete (2017) autorearen ustez, gizonek haien pribilegioak galdu behar dituzte. Hau da, gizonek aldaketa emateko erantzukizuna hartu behar dute. Gizonek jasotako pribilegioak mahai gainean jarri behar dira. Baina, iritzi hauek ez dute bat egiten autore guztiekin. Bordieu (2005) autoreak bere liburuan gizonen pribilegioen galerari buruz hitz egiten duen bezala, Azpiazu (2017) autoreak ez du uste pribilegioen galera gizonentzat etekin bezala interpretatu daitekeenik. Gizonei galdetu behar zaie pribilegioen aldaketa sortzea edo ez interesatzen bazaie. Zeren eta, aurrera ikusiko den bezala gizonek dituzten pribilegioak jendartearen esku-hartzetik kostu eta arrisku bezala identifikatu daitezke (Alonso, Aranguren eta Bacete, 2019). Gizonak berdintasun ezak ematen dizkien pribilegioekin eroso daude eta hauen galerak ez dizkie haien ustetan onurarik ekarriko (Bonino, 2000).

### 3.2. Maskulinitate krisiaren ondorioak

Aurreko atalean maskulinitateen bilakaerari jarri zaio arreta. Atal honi dagokionez, maskulinitateen krisiak gizonengan sortu egin dituen ondorio sozialetan eta estatistiketan jarriko da fokua, hau da, pribilegioak aztertuko dira eta hauek gizonen arteak ekartzen dituzten ondorio sozial larriak. Ondorio sozial hauen estatistikak behin aztertuta, Gizarte Langintza feministatik plazaratu izan diren estrategiak eta gizon kolektiboen ekimenak aipatu egingo dira.

#### 3.2.1. Ondorio sozialak eta estatistikak

1980. urtetik aurrera gizonen osasunean ikertzen hasi zen. Hala ere, ikerketa hauen fokua oraindik emakumeetan jarrita zegoen, nahiz eta ikerketen gai nagusia gizonen osasuna izan. Azpiatal honetan, maskulinitate hegemonikoak dituen ondorio sozialak estatistiken bitartez aztertuko dira.

Osasunaren zaintza eza arrisku jarrera bezala identifikatu behar da, are gehiago maskulinitate hegemonikoak zaintzazko jarrerak baztertzen dituenean. Arrisku jarrera horren ondoren sortzen diren kalteak maskulinitate hegemonikoa kaltegarria dela baieztatzeko emaitzak dira. Gizonaren etsai nagusiena bere identitate propioa eta hori sortzeko eraiki duen era da (Alonso eta López 2015). Bacete, Bergara eta Riviere (2008) autoreen hitzetan: "Nortasun maskulinoaren alderdietako bat etengabe norberaren gaitasunak beste gizon batzuen aurrean erakustea da" (29. or.). Heroi itxura horrek gizonei beste gizonen onarpena bilatzera eramaten die, haien segurtasuna alde batera utziz. Jarrera hori maskulinitate hegemonikoaren ereduarekin bat egiten du, zeinak gizonei arrisku ekintzak egitera eramaten die haien ausardia erakustea helburua dutelarik (Bacete, Bergara, Riviere, *Ibid*). Presio honek gizonen ongizatean adierazten da. Ekintza guztiak inter komunikatuta daude, horregatik jendartean dauden jarrera suntsikorrak forma eta dimentsio desberdinetan eragina dute. Fenomeno unibertsal hau sexismoak sortutakoa da. Beraz, esan beharra dago maskulinitate hegemonikoak gizonen osasunean modu negatiboan eragiten duela (Bacete, 2017). Gizonak ezin hobeki integratuta daude aktibo, indartsu eta kontrola izateko, defentsiban egoteko, minari eusteko, gorputza baieztapen pertsonalaren erreminta bezala erabiltzeko eta laguntzarik ez eskatzeko. Arrazoi hauengatik osasun gaiak jorratzen direnean gizonen ondoezaren kudeaketan nabarmentzen da (Bonino, 2002). Bacete (2017) autoreak bere liburuaren azpi-kapitulu batean honako galdera azaleratzen du: *"¿Por qué los hombres mueren antes?"*. Galdera hau erantzuteko estatistiken datu kuantitatiboak aztertu behar dira.

Gizonen maskulinitate hegemoniko toxikoak inpaktu soziala sortzen du; alde batetik, haiengan eta beste aldetik, jendarte osoarengan (Alonso eta López, 2015; Bacete, 2017). Ideia honek gizonen lesio eta minaren dimentsio parametroak handitzen ditu; drogen kontsumoan, lan-istripuetan, trafiko-istripuetan edo suizidioetan adibide bezala hartuta (Bacigalupe eta Martín, 2007; Bacete, Bergara eta Riviere 2008; Alonso eta López, 2015). Ideia kontrastatzeko, estatistika desberdinetako datuak erabiliko dira:

Aztertu egin den lehenengo datua bizi-itxaropenari erreferentzia egiten dio. Bizi-itxaropena emakumeen eta gizonen arteko heriotza-tasarekin erlazio zuzena du, hau da, gizonen ongizatea hobeto ezagutzeko faktore baliagarria da (Bacete, 2017).

**1. Taula: Bizi-itxaropena jaiotzean, Euskal AEn, heriotza-kausaren eta sexuaren arabera, 2017-2018.**

| BIZI-ITXAROPENA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|
| Kanpoko arrazoirik gabe | 86,7 | 81,2 |
| Zirkulazio istripurik gabe | 86,4 | 80,7 |
| Tumorerik gabe | 89,3 | 85 |

**Iturria: Eustat (2020), aldaketa propioekin.**

Lehenengo taulari arreta jartzen zaionean, ikusgarria da nolatan emakumeen bizi-itxaropena altuagoa da gizonen bizi-itxaropenarekin alderatuz. Emakumeen kasuan, kanpoko arazorik eduki ezean hauen bizi-itxaropena 86-87 urte bitartean dago. Aldiz, gizonena 81-82 urteen bitartean. Zirkulazio arazoa sufritu ez duten pertsonen kasuan, emakumeen bizi-itxaropena 86-87 urte bitartean dago, aurreko datuan bezala. Gizonena 80-81 urte bitartean, hauen puntuazioa urte bat gutxiagokoa izanda. Azkenik, tumorerik izan gabe bizitzen duten pertsonen bizi-itxaropen tasak datu altuenak ematen ditu; emakumeen kasuan 89-90 urte eta gizonen kasuan, 85 urte.

Hilketa naturalak aztertuta, bigarren taula honetan Euskal Autonomia Erkidegoko suizidioei arreta jarriko zaio. Hiru lurralde historikoetan datuak banatuz eta fenomeno honen atzean aurkitzen den sexu desberdintasuna aztertuz.

**2. Taula: Euskal AEko suizidioak, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera, 2018.**

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | EUSKAL AE |
|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 7 | 24 | 17 | 48 |
| Gizonak | 16 | 64 | 34 | **114** |

**Iturria: Eustat (2019), aldaketa propioekin.**

Bigarren taula honetan, hiru lurralde historikoak kontuan hartuz, nabarmentzen da hiruretan gizonen heriotzak suizidio fenomenoarengandik gehiago direla emakumeen heriotzak baino. Euskal Autonomiako datuen arabera, gizonen kasuan 2018. urtean 114 gizonek bere buruaz beste egin zutela erregistratu zen. Emakumeen kasuan, 48 kasu erregistratu ziren, hau da, 66 emakume gutxiago. Bizkaiko probintzian suizidio kasu gehiago erregistratu ziren beste bi probintziekin alderatuz.

Suizidioen taula aztertu ondoren, IMAGES inkestak (Aguayo *et al.*, 2011) plazaratutako datuak grafikoen bidez aztertu egingo dira:

**1. Grafikoa: Osasun mentala (%), 2011.**




**Iturria: Aguayo *et al.* (2011). IMAGES inkesta (35. or.).**

Lehenengo grafikoan ikusten den bezala, gizonei haien osasun mentalari buruz egindako galderen erantzunak agertzen dira. Gizonen %37,6ak aitortu zuen azken hilabetean estresa nabaritu zuela, %17a deprimituta sentitu zela, %11k sexu desiraren galera nabaritu zuela eta %8,8a burutazio suizidak izan zituela.

**2. Grafikoa: Autoestimua (%), 2011.**




**Iturria: Aguayo *et al.* (2011). IMAGES inkesta (36. or.).**

Bigarren grafikoan ikusgarria da nolatan gizonen %9,4ak aitortu zuen ez zuela bere bizitza baliagarria ikusten eta %13,4ak lagunen artean gutxiago sentitzen zela aipatu zuen. Aguayo *et al.* (2011) autoreek baieztatzen dute jendarteko gizonen %5a eta %15aren artean autoestimua eta ongizate pertsonalari buruzko arazoak dituela.

Sexuaren banaketak duen eragina jarraitzen aztertzeko trafiko-istripuak erreparatuko dira.

**3. Taula: Euskal AEn trafiko-istripuetan inplikaturiko pertsonen banaketa lesio motaren arabera, sexuari jarraiki, 2017.**

| TRAFIKO -ISTRIPUAK | EUSKAL AE | | BIZKAIA | |
|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEA | GIZONA | EMAKUMEA | GIZONA |
| Hildakoak | 8 | 26 | 3 | 3 |
| Zauritu larriak | 85 | 237 | 28 | 73 |
| Zauritu arinak | 1.157 | 1.794 | 570 | 973 |

**Iturria: Eustat (2018), aldaketa propioekin.**

Hirugarren taulari dagokionez, 2017. urtean lortutako trafiko-istripuen datuetatik aterata dago. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko datuak alderatzen ditu. Generoaren

ikuspuntuari aztertuz, hildakoen kasuan, zauritu larrien eta zauritu arinen kasuetan gizonen datuak altuagoak dira emakumeenak baino. Bizkaiko hildakoen kasuan izan ezik, datuak berdinak direla, 3 hilketa. Zauritu larrien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko mailari erreparatuz, desberdintasun handia nabarmentzen da, 2017an trafiko-istripuetan 85 emakume zauritu larriak agertu zirelako, 237 gizonen aurrean, 152 pertsonetako desberdintasunarekin.

Trafiko-istripuen taula erreparatu izan da. Orain, lan-istripuen taulari arreta jarriko zaio.

**4. Taula: Bajadun lanaldiko lan istripuak Euskal AEn, motaren eta larritasunaren arabera sexuari jarraiki, 2018.**

| BAJA MOTAK | SEXUA | |
|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| Arina | 9.815 | 23.657 |
| Larriak | 46 | 153 |
| Heriotzazkoak | 2 | 33 |
| Lanaldian | 7.703 | 22.176 |

**Iturria: Eustat (2018), aldaketa propioekin.**

Laugarren taulan, gizonen kasuan, datuak altuagoak dira. Baja arinen kasuan 2018. urtean 23.657 gizonek eskatu zuten, 9.815 emakumeen aurrean. Baja larriak arinekin alderatuz gutxiago izan ziren, baina hala ere, gizonen kasuan 153 eskatu ziren 46 emakumeen aurrean. Heriotzei erreparatuz, emakumeenak 2 izan ziren eta gizonenak 33. Lanaldiaren bitartean hartutako bajen kasuan lan-istripuen ondorioz 22.176 gizonek hartu zuten eta 7.703 emakume.

Hurrengo taulari dagokionez, droga kontsumoaren eraginarenpean izandako arazoei erreferentzia egiten dio, sexuarengandik banatuta dagoen heinean.

**5. Taula: Biztanleria osoaren arteko arazoak droga eraginarenpean sexuaren arabera (%), 2017.**

| DROGA ERAGINARENPEAN IZANDAKO ARAZOAK | SEXUA | |
|---|---|---|
| | EMAKUMEA | GIZONA |
| Ezezagunekin izandako borrokak | 3,3 | 7,2 |
| Familiarekin izandako borrokak | 2,1 | 3,4 |
| Lagunekin izandako borrokak | 4 | 8 |
| Trafiko-istripuak | 0 | 0,4 |
| Lan-istripuak | 0 | 0 |
| Polizia eta legearekin izandako arazoak | 0,4 | 2,6 |

**Iturria: Eusko Jaurlaritza (2018), aldaketa propioekin.**

Bosgarren taula honetan, nabarmentzen da zeintzuk izan diren drogaren eraginarenpean izandako arazoak sexuaren araberako banaketarekin. Egindako sailkapenaren kasu guztietan, gizonek arazo kopuru gehiago izan zituzten 2017an emakumeek baino. Hau da, ezezagunekin izandako borrokak %7,2ak gizonenak izan ziren eta %3,3ak emakumeenak. Familiarekin izandako borrokak, aurrekoak baino gutxiago izan ziren, %3,4a gizonen kasuak eta %2,1a emakumeenak. Lagunekin izandako borroketan datu baxuagoak agertzen dira, baina gizonek emakumeei bikoiztu egiten diete. Trafiko-istripuen kasuan emakumeen artean ez ziren daturik erregistratu eta gizonen artean kasu bakarra. Lan-istripuen kasuan, ez daude emakumeen nahiz gizonen daturik erregistratuta. Azkenik, polizia eta legearekin izandako arazoak gutxiago izan ziren emakumeenak, gizonek izan zituzten arazoen aurrean.

Hurrengo taularen kasuan, sexuarekiko substantzia ilegalen kontsumoari erreferentzia egiten dio.

**6. Taula: Substantzia ez legalaren kontsumoa sexuaren arabera (%), 2017.**

| DROGAK | SEXUA | |
|---|---|---|
| | EMAKUMEA | GIZONA |
| Speed, anfetaminak | 4,6 | 12,4 |
| MDMA, estasi | 1,4 | 5,9 |
| LSD | 1,6 | 4,9 |
| Kokaina | 4,8 | 13,3 |
| Krak | 0,2 | 0,6 |
| Heroina | 0,5 | 0,8 |
| Seta haluzinogenoak | 2,1 | 4,9 |
| Ketamina | 0,2 | 1 |

**Iturria: Eusko Jaurlaritza (2018), aldaketa propioekin.**

Seigarren taulari erreparatuz, gizonen kasuan hauek droga gehiago kontsumitzen dituzte emakumeak baino 2017ko kontsumo datuen arabera. Speed eta anfetamina drogaren kasuan, gizonen artean %12,4a kontsumitu zen emakumeen %4,6aren aurrean. Kokaina gizonen eta emakumeen artean gehien kontsumitzen den droga da eta Krak-a gizonen artean gutxien kontsumitzen dena. Krak eta ketamina emakumeen artean gutxien kontsumitzen dena.

Drogen kontsumoaren taulan ikusi den moduan gizonen artean kontsumo altuagoa ematen da. Hurrengo taularen kasuan, ikusgarri da emakumeen artean depresioaren aurkako psikofarmako gehiago kontsumitzen direla gizonen artean baino.

**7. Taula: Depresioaren aurkako kontsumitutako psikofarmakoak sexuaren arabera (%), 2017.**

| PSIKOFARMAKOAK (Bizitzan behin kontsumitutakoak) | SEXUA | |
|---|---|---|
| | EMAKUMEA | GIZONA |
| Lasaigarria eta lo-eragilea errezetarekin. | 32,3 | 19,6 |
| Lasaigarria eta lo-eragilea errezetarik gabe. | 3,2 | 1,3 |
| Depresioaren aurkako osagaia errezetarekin. | 34,1 | 20,1 |
| Depresioaren aurkako osagaia errezetarik gabe. | 0,2 | 0,2 |

**Iturria: Eusko Jaurlaritza (2018), aldaketa propioekin.**

Azken taula honetan, emakumeen artean 2017. urtean bildutako datuak gizonen datuak baino altuagoak dira. Taula honek depresioaren aurrean kontsumitutako psikofarmakoei erreferentzia egiten dio. Kontsumoaren datuak aztertuz, aurreko taulan (6. taula) ikusi egin izan da droga ilegalen kontsumoa altuagoa zela gizonen artean. Aldiz, taula honetan errezetarekin eta errezetarik gabe kontsumitutako psikofarmako desberdinen artean (lasaigarriak, lo eragileak, depresioaren aurkako osagaiak) emakumeek gehiago kontsumitzen dituzte gizonek baino. Depresioen aurkako osagaiak errezetarik gabeko kasuetan izan ezik, bi kasuetan kontsumoa %0,2koa da.

### 3.2.2. Gizarte Langintza feministatik planteatzen ari diren estrategiak

Aurreko atalaren ondorio sozialak kontuan hartuz, beharrezkoa da azaltzea zeintzuk diren Gizarte Langintza feministatik planteatzen ari diren estrategiak. Gizarte Langintzaren eginkizuna pertsonei haien gaitasunak potentzialki garatzen laguntzea da. Laguntze prozesu horretan oinarrizkoa da genero perspektiba kontuan hartzea (Bacete, 2009).

Aranguren (2018) autoreak[3] bi galdera nagusi azaleratu zituen: alde batetik, *posiblea izango litzateke genero ikuspuntua ez duen esku-hartzea egitea?* Autore honek baietz erantzun zuen, gaur egun oraindik ez delako genero ikuspuntuarekin esku-hartzen. Beste aldetik, *Gizarte Langintza eta feminismoa parekatu ahal dira?* Gizarte Langintza eta feminismoa ondo neurtutako bikote bat dira, bien arteko osmosi bat sortu behar da, baina bakoitzaren identitate propioa galdu barik. Gizarte Langintzari teknika gabezia duela kritikatzen zaio, baina benetan gertatzen dena zera da; gizonekin egindako esku-hartzean gaur egun zailtasun hezigarriak, ikuspuntu androzentrikoak eta erresistentziak daudela.

Aranguren (2018) autoreak azaleratutako galderak atal honen abiapuntua izango dira. Lehenengo galderari dagokionez, urte batzuetatik hona genero perspektiba Gizarte Langintzaren errealitate bat da, hala ere, oraindik jarraitzen da ulertzen generoa emakumearen berdina dela, gizonen papera alde batera utziz. Argi utzi behar da generoa ez dela emakumeen berdina. Baizik eta generoa emakumea bezala definitzean, Gizarte Langintzatik akatsak sortzen dira, gizonek ere generoa dutelako. Generoarekin esku-hartzeko programak sortzen direnean, emakumeei zuzendutako programak dira, gizonen generoari dagokionez, gaur egun oraindik ez da aztertzeko eta esku-hartzeko kolektibo bezala identifikatzen, nahiz eta gizonekin esku-hartze soziala egitea eragozten duen ezer ez egon. (Alonso eta López, 2015; Alonso, 2016). Genero ikuspuntua oraindik ez da praktika profesionalen barruan integratu: emakumeekin egindako praktika profesionaletan, ezta gizonen praktiketan ere. Gizonen praktiketan hauek biktimario izatetik rol tradizional, menpekoa eta menperatzailea izatera pasatzen dira (Alonso, Aranguren eta Bacete, 2019). Gizonei buruzko azterketen ikergaian oraindik arazoak daude; zorroztasun teorikoaren hutsunea, aztertutako objektuaren zehazkabetasuna, oinarrizko kontzeptuen lausotasuna, gizona eta maskulinitatea nabari bezala ikustea eta maskulinitateren definizioan. Zeinetan, gizona ikerketa objektu bezala jasotzen da baina bakarrik lan munduan, familian eta boterean (Minello, 2002). Espainia mailan gizonen eta maskulinitateen ikerketak eskasak dira eta aurkitzen direnak ez dute gizonen inpaktua aztertzen. Gizonekin aztertutako inkesta bakarrak; jarrera sexistak aztertzen dituzte edo erasotzaileei zuzenduta daude (Alonso eta López, 2015).

[3] 2018an egindako jaurdunaldia *Eta gizonak? ¿Y los hombres?.* Eskuragarri: <https://video.ibm.com/recorded/117854648>.

Gizonei zuzenduta dauden inkestak murriztzat badira, hauei zuzenduta dauden politikak maila baxuago batean geratzen dira. Bacete (2017) autoreak planteatzen du zergatik gaur egun oraindik ez dira genero ikuspegia duten prebentziozko politikak hedatzen, kontuan izanda jatorria identitate maskulino toxikoen eraikuntzan dagoela edo zergatik ez daude gizonei zuzendutako berdintasun politikak. Honen ustetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko estrategiek eta proposamenek kolektibo maskulinoa kontuan hartu behar dute subjektu aktibo eta inplikatua bezala. Autore honentzat ez dago zalantzarik feminismoa ere gizonen kontua dela. Arreta deitzen du bilatzen denean gizonekin egindako esku-hartze motari buruz eta ikusten denean zailtasunak daudela. Badira programa eta erakunde desberdinek gizonekin egin beharreko lana ikuspuntu aldakorrarekin txertatu dutenak (Bacete, *Ibid.*). Baina azterketa hauek ez dute inpaktu erreala adierazten ezta esku-hartzea emateko erabili beharreko erremintak argitzen ere (Alonso eta Aranguren, 2019). Gizonei zuzenduta dauden politika publikoak bi esku-hartze moten bidez egin behar dira: gizonen rola babesten duten ekintzak emakumeen egoera defendatzen dutenean eta ekintza espezifikoak ikusarazten dutenak berdintasuna ere gizonentzat onuragarria dela. Argi dago emakumeen betebehar estrategikoak eta gizonenak ez direla berdinak. Horregatik, maskulinitateen egoera arazo bihurtu, aztertu, diagnostikatu eta agenda politikoan oinarrizkoa bezala sartu behar da (Alonso, 2016).

Aranguren (2018) autorearen bigarren galderari dagokionez, oinarrizkoa da Gizarte Langintza feministatik gizonekin generoaren ikuspuntutik esku-hartzeak eta estrategiak ezartzea, paradigma aldaketa bat egin behar delako (Alonso eta López, 2015). Aldi berean, gizonekin lan egiteko asmoa badago, aurretik hiru proposamen egin behar dira: maskulinitateen azterketentzat aurrekontua jarri eta emakumeen iritzia entzun gizonaren iritzia erdigunean ez jartzen (androzentrismoaren kasuan gertatzen den bezala). Maskulinitate hegemoniko toxiko tradizionala zalantzan jarri behar da berdintasunaren esparruan aurrera pausuak eman nahi badira. Funtsezkoa da gizonek sortutako boterearen eraikuntzan hausnartzea eta haien ikuspuntutik eredu berriak bilatzea. Eginbehar hau Gizarte Langintza feministatik egin behar da (Alonso, 2016). Gizonen esku-hartze soziala planteatzean, ekintzak aurrera eramateko hiru dimentsioei aipamena egiten zaie: gizonen eguneroko praktikan aldaketak burutzea, gizonen ahultasunei erreparatzea eta gizonak feminismoaren aliatu zuzenak bihurtzea (Alonso, Aranguren eta Bacete, 2019). Gizarte Langintzako formakuntzari dagokionez, gaur egun oraindik ez dira etorkizuneko Gizarte

Langileentzat maskulinitateari buruzko formakuntzak existitzen. Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea Gizarte Langintzatik formakuntza horiek sortzeko legitimazioa dagoela (Alonso, Aranguren eta Bacete, *Ibid.*). Gizarte Langintza feministaren eskutik badira arlo desberdinak zeinetan gizonekin lan egiteko beharra dago: aitatasuna, zirrarak, sexualitatea, osasuna eta justizia bezalakoak (Alonso, 2016). Bacete, Bergara eta Riveira (2008) autoreek gizonen aldaketa emateko esku-hartze mota desberdinak proposatzen dituzte. Honako hauek dira: berdintasunaren eraikuntza; praktika berdinzaleen aurrean gizonen jarrerak aldatzea, sexismoak emakumeengan eta gizonengan sortzen dituen kateak zuzentzea; arrisku jarreretatik aldentzea; zaintza sustatu eta honen alde apustua egin; beste gizonen aurrean arrisku erakusketa eta onarpena ez bilatzea; gizonak genero indarkeria salatzen duten posizioak izatea; gatazkak konpontzeko indarkeriaren legitimitatea deseraikitzea; gizonek berdintasunaren errebindikazioak berezkoak bezala hartzea eta gizonek beste gizonen aurrean duten jarrera aldatzea. Azken finean, alde batetik, emakumeak eta gizonak konpromisoak batu behar dituzte, beste aldetik, administrazio publikoengandik inplikazio handiagoa jarri behar da, berdintasunaren alde dauden politika berriak eta espezifikoak ezartzeko eta gizona kolektibo espezifiko bezala aztertzen hasteko (Bacete, 2017). Salazar (2012) autoreak aurrekoarekin bat etorriz, berak proposatzen dituen esku-hartzeak honako hauek dira: feminismoaren eta maskulinitateari buruzko ikasketak errebindikatzea; feminismoaren ekarpenak balioztatzea; maskulinitateen hausnarketak zabaltzea; maskulinitate hegemonikoaren eta kulturaren berrikuspenak batera egitea; maskulinitate berriak proposatzea; arlo desberdinetan genero ikuspuntua duten ikerketa berriak sortzea; hezkuntza programa berrien bidez, maskulinitate anitzak dituztenak, berdintasunean hezitzea; maskulinitate hegemoniko toxikoa birplanteatzea, kritikatzea eta gatazken kudeaketarako metodo berriak azaleratzea. Idoia Eizmendik (in Azpiazu, 2017) aipatzen du:

> "Pararse y replantearse las iniciativas dirigidas a hombres pasa necesariamente por crear condiciones para un debate en el que participemos, al menos, grupos de hombres, movimiento feminista y técnicas de igualdad, en que busquemos consensos mínimos y establezcamos y prioricemos una agenda. Pero, para que esto suceda, creo que previamente los colectivos feministas debemos abordar este debate, algo que no se está haciendo. Pienso que deberíamos sentarnos a debatir

> sobre cuál creemos qué es el espacio político de los grupos de hombres, cuáles deberían ser las alianzas, si apostamos por la creación de grupos específicos de hombres" (132. or.).

Aurretik aipatu izan diren esku-hartze multzoak eta estrategiak Gizarte Langintza feministarengandik planteatutako eskumenak dira, hau da, kontrastatzen da Gizarte Langintza eta feminismoa batzean estrategia berriak sortzen direla.

**3.2.3. Gizonen ekimenak ondorio sozialei aurre egiteko**

Gizarte Langintzaren eskutik planteatzen diren estrategiak ez dira bakarrak, badira gizonen aldetik planteatzen ari diren estrategiak ondorio sozialei aurre egitea helburua dutenak. Estrategia hauei gizonen ekimenak deituko zaizkie, gizonen eskutik beste gizonentzat eginda daudenak. Gizon feministek ez dute elite eta politika sozial propioa irudikatzen. Haien burua kuestionatzen duten gizonak dira, zalantza aplikatzen diote haien identitate, erlazio eta esperientzia propioei. Bacete (2017.) autoreak "burutugabeko gizona" adierazpena erabiltzen du. Burutugabeko gizon hauek oraindik gutxi dira kolektibo feministen barruan sartuta daudenak. Garrantzitsua da aztertzea zeintzuk izan diren Espainiako Estatuan aurrera eraman diren esku-hartze motak eta estrategiak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari aurre egiteko.

Espainiari dagokionez, 1983. urtean Emakumearen Institutua sortu egin zen (Alonso, 2016). Berdintasunari dagokionez, gizonen paperari buruz lehen aldiz Brasilian 2003. urtean hausnartzen eta eztabaidatzen da, Nazio Batuen Aurreratze Zatiketa pertsona adituen bileran. Bilera horren ondorioz, Batzordeak Gobernuei berdintasunaren alde jartzeko neurriak ezarri behar dituztela eskatzen du. 2004. urtean Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala ateratzen da eta 2007. urtean Berdintasunaren Aldeko Legea. Euskal Herri mailari dagokionez, gizonen ekimenen artean nabarmentzekoa da 2008an Vitoria-Gasteizen gaur egun iraungita dagoena Arabako Berdintasunaren Aldeko Gizonen talde sortu zela. Talde honen helburuak indarkeria matxisten kontrako borroka eta gizonen arteko zaintzak sustatzea zen. Euskal Herrian berdintasunaren aldeko gizonei zuzendutako politikak bultzatu ziren, adibide bezala Emakundek Gizonduz programa espezifikoaren sorrera aurkitzen da, 2008. urtean atera zena gizonen konpromisoa bultzatzeko emakume eta gizonen berdintasunean (Bacete, 2017).

Espainian gaur egun arte gizonekin lan egiteko ekimen nabarmena hauek izan dira: Jerezko Udala, Gizonduz programa Emakunderen eskutik sortua, Gizonei Zuzendutako Zerbitzua edo gaztelaniaz el Servicio de Atención a los Hombres (SAH) Bartzelonako Udaletik zuzenduta, Berdintasunen Aldeko Gizonen Programa Sevillako Foru Aldunditik sortuta, AHIGE, Fundación Cepaim (Alonso eta Aranguren, 2019). Ikusten den moduan, Espainian proposatutako estrategiak murritzak dira, haien artean aipagarriak Jerezko Udala eta Eusko Jaurlaritza. AHIGE, Heterodoxia eta PPiiNA bezalako mugimenduak eskasak dira gizonen papera kolokan jartzen dutenak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko gaur egun Euskal Herri mailan VII. Plana martxan dago (Alonso, 2016). Nahiz eta mugimendu batzuk egon, Espainia ez da oraindik gizonen inklusioari buruz hausnartzen hasi, ez dira gizonak aldaketa eragile bezala antzemateen, erasotzaileentzat zuzenduta dauden politika eta programetatik harantzago, gizonen eskari eta interes falta izan zitekeen kausa horren arrazoiak Berdintasun planek ez dute gizonak era argi eta zuzen batean aipatzen, ezta subjektu hartzaile bezala ere. Gizonei buruz hitz egiten denean, biztanleria osoari aipamena egiten zaio. Fenomeno hau ez da bakarrik Espainian gertatzen, beste hainbat herrialdeetan ere errepikatzen delako (Alonso, *Ibid.*). Estrategia horien artean, hauek dira Europan eta Amerikan ematen ari diren esperientziak:

MenEngage: Berdintasunaren aldeko gizonen sare feminista eta globala da,700 erakunde dituena. Emakumeez eta gizonez osatuta eta koordinatuta dago. Sare honen helburu nagusienak genero berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea dira, baina helburu hauek lortzeko gizonen parte-hartzea beharrezkoa da.

MenCare: Aitatasunari buruzko kanpaina bat da. Bost kontinentetako 40 herrialde desberdinetan egiten da.

HeForShe: Nazio Batuen kanpaina bat da. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun ekonomikoak, sozialak eta kulturalak menperatzea helburua du.

Promundo: Erakunde mistoek lan egiten dute. Genero ekitatean eta genero indarkeriaren prebentzioan lan egiten da.

Fundación Cepaim: Espainiako erakunde bat da. Jendarte eredu inklusiboa sustatzen du. 2014. urtean gizonekin egindako prebentzio ekintzak erantsi zituzten.

Angry white men: Michael Kimmel Gizonen eta Maskulinitateen Ikasketa Zentroaren sortzailea eta zuzendaria Stony Brook Unibertsitatean eta Angry White Men: American Masculinity at the End of an Era (Haserretutako Gizon Zuriak: Amerikako Maskulinitateen Aro baten Amaieran) mugimenduaren aitzindaria.

### 3.3. Maskulinitateak eta feminismoa

Maskulinitateek feminismoaren ideologian izan duten ikuspuntua hobeto ulertzeko, atal honetan alde batetik; feminismoaren ikuspuntu ideologikoa kontuan hartuko da eta honek duen begirada maskulinitate berrien aurrean aztertu egingo da. Beste aldetik, gizonen kasuan, ikusgarria denez, gizonek feminismoa ideologia bezala onartzen ez duten hipotesia aztertu egingo da, gizonen ikuspuntua feminismoaren aurrean azpiatala eskainiz. Azkenik, hirugarren azpiatalean, feminismoak dituen ahultasunak maskulinitate berriei dagokienez aztertu egingo da.

#### 3.3.1. Feminismoa maskulinitate berriei begira.

Atal honetan feminismoaren ikuspuntua aztertu egingo da eta honek duen begirada maskulinitate berriei begira. Bacete (2017) autoreak aipatzen du feminismoak gizonaren mitoa desegiten duen erreminta eta aurkikuntza bat dela. Feminismoak laguntzen du maskulinitate hegemoniko toxikoak, eredu berrietara bilakatzen, hau da, bi aldeek desberdintasuna ezeztatzen badute, bi aldeek aurrera pausuak emango dituzte. Zaila delako emakumeengan aldaketak irudikatzea gizonen bizitzan aldaketa horiek ez badira ematen. Gizonak berdintasunarekin konprometitu behar dira, emakumeei zor dieten betebehar historikoa delako (Lomas, 2003). Bacete (2017) autoreak Kelley Temple Erresuma Batuko aktibista feministaren esaldi interesgarri bat aipatzen du, eta honako hau da: "Los hombres que quieren ser feministas no necesitan que se les de un espacio en el feminismo. Necesitan coger el espacio que tienen en la sociedad y hacerlo feminista" (189. or.). Gizonekin egindako lana, zaila eta aldi berean beharrezkoa da, hauek kolektibo bezala ez daudelako ohituta haien buruari buruz eztabaidatzera (Alonso, 2016). Alonso eta López (2015) autoreen ustetan gizonen papera feminismoaren barruan non dagoen galdetzeko, lehenenik eta behin beharrezkoa da feminismotik galdetzea zein den aztertu

beharreko subjektu politikoa. Jendarteak esperientziak, zailtasunak, beharrak eta itxaropenak ordezkatzen dituen solaskideak behar ditu, ez da legezkoa sama hau emakumeen eskuetan bakarrik jartzea (Lozoya, 2008). Salazar (2012) autoreak azpimarratzen du, gizonei komeni zaiela haien erantzukizuna bi sentsutan onartzea; alde batetik, subjektu aktiboak izaten berdintasunaren borrokan, feminismoaren mugimenduarekin bat egiten, hau da gizonen mugimenduak sortzen eta beste aldetik modu aktibo batean generoaren “arau hegemonikoak” berrikusteen. Michael Kimmel (in Carabí eta Armengol, 2008) autoreak honako esaldia aipatzen du:

> “Creo que una forma de comprometer a los varones en el feminismo es que se den cuenta de que apoyar la igualdad de género los beneficia (...) si me preguntan cómo conseguir que los hombres den apoyo a la igualdad de género yo diría que se necesitan cambios estructurales y cambios personales, sin separar unos de otros" (25.-26. or.).

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna emateko, beharrezkoa da gizonen kolaborazioa, zeinei maskulinitatearen eredu tradizionalaren aldaketa erreklamatzen zaie (Domingo, 2008). Gizonek haien askatasunerako feminismoaren teoria desberdin bat behar dute, maskulinitateen identitateak ikertzen direnean, aldi berean maskulinitate hauen estrategiak zeintzuk diren ikertu behar dira (Azpiazu, 2015). Martín (2007) autorearen ustetan maskulinitateen ikerketek feministentzat hiru helburu nagusi dituzte: emakumeen azterketetan oinarrituta dauden ikertzaileei gaian sakontzera laguntzea, emakume gazteen artean feminismoaren borroka ere gizon profeministen objektu zuzena dela ulertzea, hau da, berdintasunaren borroka emakume eta gizonena izan behar dela eta azken helburua; gizonei haien identitate propioa zalantzan jartzeko erremintak ematea.

### 3.3.2. Gizonen ikuspuntua feminismoaren aurrean

Atal honi dagokionez, aurreko puntuarekin erlazio zuzena du. Ikusi egin dugu nolakoa den feminismoaren ikuspuntua maskulinitate berriei begira. Orain ikusiko dugu nolakoa den gizonen ikuspuntua feminismoari begira. Elkarren artean dituzten desberdintasunak teorizatzeko. Badira gizonak ez dutenak haien transformazioa birplanteatu, gizona-arra etiketa haiekin bat datorrelako eta feminismoarekin saminduta daude. Hau da, gizon batzuen kasuan, hauek uste dute feminismoak askatasun handiagoa bermatu egin diela

emakumeei haiei baino, sistemak mindu egin dienaren ustea dute eta gizonen biktimizazioan oinarritzen dira. Adibideak jartzearen Trump, Putin eta Abascal bezalako gizon politikarietan oinarrituz, ikusgarria da nolatan krisiaren aurrean, zeinak gizonen pribilegioak zalantzan jartzen ditu, oraindik aurkitzen dira gizonak ongizate-zonari gogor heltzen diotenak. Gizon adibide hauen kasuan, hirurek haien maskulinitate hegemoniko toxikoa komunean dute. Hona hemen aztertuta: Donald Trump-en kasuan, Estatu Batuetako gizon boteretsuena da, hala ere, *supergizon* maskararen atzean bere segurtasun-gabeziak eta beldurrak aurkitzen dira. Enpatia gabetasunean eta gutxiespenean oinarritzen da bere pertsonaia. Vladimir Putin-en kasuan, gizon gogorra, sexista, homofoboa eta militarista da. Ezaugarri guzti hauek bere politikan irudikatzen dira. Politikari honek matxismoa era kolektiboan hedatzen du eta bere herriari ideologia mota hau inposatzen dio (Bacete, 2017). Santiago Abascal politikariaren kasuan, Espainiar Estatuko VOX alderdi politikoaren lider nagusiena da. Bere alderdiak antifeminismo erradikala babesten du, beste ideia politikoak zapaltzen dituen heinean. Bere pribilegioak sostengatzea eta beste pertsonen gainean menderatzea helburu nagusiena du. Jarraitzen duen ideologia menperatzaileak matxismo ideologiarekin bat egiten du. Inposatutako ideologia horrekin bat ez datorren jarraitzaileak, emakumeak, LGTBI kolektiboa eta bere maskulinitate hegemoniko toxikoaren ideologia partekatzen ez duten gizonak baztertzen ditu (Chávez eta Vergés, 2019). Perry (2018) autoreak gizonen jausialdiari buruz hitz egiten du, honen ustetan, emakumeen kontra gaizki esaka ari direnak, benetan haien buruaren kontra eta maskulinitatearen kontra doaz. Gizon hauek feminismoa haien izaerari egindako eraso bezala irudikatzen dute eta ez berdintasunaren bidea sortzeko aukera bezala.

David Gilmore autoreak Carabí eta Armengol (2008) autoreen elkarrizketan aipatu egiten du gizonek haien maskulinitatea berraztertzen ari direla. Gizon batzuen kasuan, hauek ez dakite ondo zer egin eta ahaleginak egiten dituzte haien burua definitzeko. Autore honek adierazten du garrantzitsua dela galdetzea gizonei era zuzenean maskulinitateei buruz hitz egin nahi badute, honi buruz hitz egitea ahultasuna eta zaurgarritasuna sentiarazi ahal dielako. Azpiazu (2017) autoreak gizonen jarrera desberdinak deskribatzen ditu feminismoari buruz galdetzen zaienean; hau da, galdera entzun ez dutenarena egiten dute, galdera entzun baina haiekin bat ez datorrela adierazten dute, galdera era azkarrean erantzuten dute edo galdera beste era batean berriz adierazten dute. Gizon hauek ez dute maskulinitate hegemonikoa zuzenean adierazten, baina bai praktikatzen dute. Gizonen

gehiengoak era berdinean jarraitzen du jokatzen, eredu hegemonikoa mantenduz, nahiz eta zuhurtziaz igaro. Maskulinitatearen esperientzia zentralizatuta izan duten gizonentzat, feminismoarekin izandako topaketa gatazkatsua izaten jarraitzen du, hauentzat feminismoa deserosotasuna transmititzen dien espazioa bihurtzen delako. Horregatik, garrantzitsua da birplanteatzea zeintzuk diren gizonentzat feminismoak eman ahal dizkien onurak. Horiek gizonak feminismora erakartzeko baliagarriak izan ahal dira, baina ez guztiz errealak. (Azpiazu, 2015). Bestaldetik, badira gizonak emakumeen espazio ez mistoak oraindik jeloskortasun eta mesfidantza puntu batekin begiratzen dituztenak. Azpiazu (2017) autoreak aipatzen du, oraindik zaila egiten zaiela gizonei pentsatzea emakumeek jarduten duten espazio ez mistoak daudela, gizonen begirada eta kontrolaren menpe izan barik. Gizonei espazio ez mistoen onarpena ematea kosta egiten zaie. Gizonen artean ematen ari diren erresistentziak, arrakasta bezala identifikatu ahal dira. Erresistentzia hauek fokua jartzen dutelako bere zergatian eta gizonen motibazioak zeintzuk diren hobeto ulertzen laguntzen dute. Erresistentziari buruz hitz egitean, posizio baten mantenuari buruz hitz egiten da, hau da, posizioa galtzearen erresistentzia (Bonino, 2000).

### 3.3.3. Feminismoaren ahultasunak maskulinitate berriei begira

Aurreko puntuetan fokua jarri izan da feminismoaren ikuspuntuari maskulinitate berrietan eta gizonen ikuspuntuari feminismoari begira. Hala ere, azpiatal honi dagokionez, badira feminismoak dituen ahultasun batzuk maskulinitate berrien gaian. Nahiz eta feministen ustetan gizonen kolektiboek berdintasunaren borrokan parte-hartu behar duten, oraindik ez da parte-hartze hori nahi bezain beste lortu. Aurreko puntuan ikusi izan den bezala, gizonen jarrera feminismoaren aurrean ez da guztiz positiboa, eta horren zergatia azaltzeko, feminismoarengandik dauden ahultasunak aztertu behar dira, ahultasun hauek soilik erreferentzia egiten diote maskulinitate berrien gaiari eta gizonen parte-hartzeari kolektibo feministetan, ez feminismoaren ideologia osoari.

Bacete (2017) autoreak aipatzen du gizonak oraindik ez daudela feminismoaren barruko tarteetan nahiko sartzen, nahiz eta feminismoa ere gizonen kontua bat izan. Horregatik, autore honek esaten duen bezala: “Las estrategias y propuestas para lograr la igualdad real efectiva de mujeres y hombres tienen que incluir al colectivo masculino como sujeto activo e implicado" (185. or.). Gizonak aldaketaren barruan inplikatzeko, zerbait

onuragarria bezala aurkeztu behar zaie haientzat eta jendartearentzat. Gizonak bakarrik aldaketara batuko dira, hauek irabazteko zerbait dutenean (Perry, 2018). Maskulinitate eredu berriak ez dira posible izango gizonei baztertzen bazaie (Salazar, 2012). Gizonek mesfidantzarekin begiratzen dituzte espazio feministak. Gizon hauek maskulinitatea lantzen den espazioetan feministei baimena eskatzera ailegatu dira, baztertuta eta nahasteko beldurrarekin sentitzen direlako. Emakumeek ezin dituzte gizonen ahotsen ordez hitz egin ezta hauen erantzukizunaren jabe izan (Lozoya, 2008). Hala ere, Lynne Segal autoreak (in Carabí eta Armengol, 2008) azaltzen du, badirela feministak haserretuta daudenak fokua maskulinitateen ikerketan jarri delako. Autore honek azpimarratzen du feminista horiek duten ustea ez dela benetakoa, maskulinitateei buruzko ikerketak ez dira feminismoaren lan akademikoaz jabetu. Feminista hauen aldaketarako erresistentzia 70. urtean eztabaida nagusia izan zen gizonen taldeen barruan, hauek sortu zirenean. Urte horretan gizonek feminista batzuen kritikak jaso behar izan zituzten, hauek paradoxikoki laguntzen zeudenean. 90. hamarkadan gizonen ikerketetan goren aldia ematen da, garai horretan feminista batzuen artean kritikak mantendu egin ziren, hauek aitortuz ez zutela nahi emakumeen ikerketak fokua izateari utzi. Autore honen ustetan garrantzitsua da azpimarratzea, maskulinitateen azterketak era flexible eta begikotasunez txertatu behar direla ikerketa feministetara. Azpiazu (2012) autoreak feminismoaren limiteak aipatzen dituenean, nabarmendu egiten du feministen aldetik txarto interpretatutako proposamenak daudela, feministek haien errekurtsoak arriskuan ikusten dituztelako maskulinitatea lantzeko errekurtso berrien agerpenarekin. Gizonekin lan egiteak ez du esan nahi emakumeen eskariak gaur egun konponduta izan diren. Aitzitik, emakumeen desberdintasunaren arazoa era zuzenean eta ez zuenean ulertzea esan nahi du. Emakumeekin egindako Gizarte Langintza lanean genero ikuspuntua faltan ukatzen badugu, gizonekin egindako esku-hartzea perspektiba falta izango du eta erresistentziak sortuko ditu (Alonso eta Aranguren, 2019.). Gizonek ere generoa dutela ikusten lagundu behar zaie (Salazar, 2012). Femeninoa ez da bakarra generoa duena (Lomas, 2003). Ikuspuntu feministak maskulinitateetan begirada jartzen duenean bakarrik oinarritzen da gizonek dituzten esperientziak maskulinitateetan, kontuan hartu barik orokortuta dauden botere erlazioak eta erlazio hauen aldaketak zer neurritan eragindak izaten ari diren edo ez (Azpiazu, 2017). Azpiazu (*Ibid.*) autoreak honako galdera botatzen du: *"Eraginkorra izaten jarraitzen du gizonen aldaketak ereduen ikuspuntutik eta identitatetik planteatzea, ahalduntzetik egitearen ordez?"*. Edo Alonso, Aranguren eta Bacete (2019) autoreek

azaleratzen dutena: *"Gizonen interes estrategikoa ahalduntze eza edo pribilegioen galera izan daiteke?"*. Galdera hauek maskulinitate berrien gaia jorratzeko unean feminismoari norabidea ematen laguntzen diote.

**3.4. Gizonen taldeak**

Azken atal honi dagokionez, maskulinitateen gaian sakontasuna edukita, garrantzitsua da gizon taldeak aipatzea, hauen bilakaera eta motak aztertuz, zeinak gizon ekimenaren ondorioz estrategia bezala sortu egin dira. Bizkaiko gizonen taldeei aipamen berezia egingo zaio, aurkitzen diren talde desberdinak aztertuz eta hauek barrutik ematen dituzten esku-hartze sozialak aipatuz.

**3.4.1. Talde motak eta hauen bilakaera**

Gizonen taldeetan ematen den talka neurtzeko, beharrezkoa da hasieratik taldearen helburuak argi edukitzea. Gizonen taldeak bizipen espazioak, genero berdintasunaren hausnarketa maskulinoak, komunikazio espazioak, gizonari barnetik hausnartzeko aukera ematen dion lekua eta topaketa gune ez mistoak dira. Maskulinitate hegemoniko menderatzailea eta honen jarrerak zalantzan jartzen dituzte, deseraiketa ematea eta eredu Patriarkal matxista kolokan jartzea helburua dutelarik. Talde hauen metodologia feminismoan oinarritzen da (Alonso eta Aranguren, 2019). Pérez (2019) autoreak adierazten du gizonen taldeak honako hau direla: "espacio con ventanas a nuestro paisaje personal y social" (129. or.). Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak aldaketa handi baten parte dira, dibertsitate anitzeko gizonak kontuan hartzen dituena eta eredu maskulino tradizional hegemonikoa ezeztatzen dutenak (Lozoya, 2008). Desberdintasunarekin kontziente izan direnen kasuan, kolektibo txiki bat desberdintzen da, hauek publikoki berdintasunarekin konprometituta daudenak eta berdintasunaren aldeko gizonen taldeetan aurkitzen direnak (Domingo, 2008). Gizon kantitate handia konturatu izan da feminismoaren borroka Patriarkatuaren kontra, gustatu edo ez, aldaketa handiak ekarri izan dituela. Gizonen posizioak anitzak izan dira: badira errefusarekin jokatu dutenak eta aldiz, berdintasunaren aldaketan lerrokatzen hasi direnak (Alonso eta López, 2015). Lozoya (2015) autorearen hitzetan:

> "Es necesario que un número creciente de varones demostremos que no todos los hombres somos iguales, que somos cada vez más los que coincidimos con el

> feminismo, los que tratamos de compartir el cambio aportando nuestro ejemplo y nuestra perspectiva ante un sexismo cada vez más intolerable (...) se trata de que hagamos pública nuestra defensa de la igualdad, de que evidenciemos la división del colectivo masculino y la crisis del modelo tradicional” (1. or.).

Espainiako Estatuan gizonen mugimendua 70. hamarkadan sortu egin zen, feminismoaren bigarren olatuari egindako erantzun zuzena bezala (Alonso eta López, 2015). Mugimendu honek maskulinitatea errepasatzea helburua zuen (Lozoya, 2008). 1985 urtera arte itxaron behar izan zen gizonen lehenengo taldeak Valentzian eta Sevillan agertzeko (Alonso eta López, 2015). Erreferentzia bezala Estatu Batuak, Erresuma Batua, Australia, Kanada eta Frantzia herrialdeak hartu ziren (Kaufman in Arango *et al*, 1995). 90. hamarkadaren hasieran lehenengo erreportajeak, artikuluak, aldizkariak eta gaztelaniara itzulitako lehenengo liburuak agertzen dira (Lozoya, Bonino, Leal eta Szil, 2003). Hala ere, Espainiako Estatuan oraindik ez da praktika onen liburu bat erreferente bezala existitzen gizonen taldeekin egindako esku-hartzeari dagokionez, Latinoamerikaren kasuan bezala (Alonso eta López, 2015). Gizonen talde hauek hasiera batean proposamen indibidualak direnak denborarekin talde txikiak bilakatzen dira. Hala ere, oraindik zalantza dago ea talde terapeutikoak diren edo ez. 1998an Ana Orantes emakumearen erailketa gertatzen denean, Sevillan Lazo Zuriaren kanpaina sortzen da, Espainiako lehenengoa bilakatuz. Kanadatik sortutako kanpaina bat da, Michael Kaufman eta Jack Layton aitzindariek 2000. urtean azaleratu zutena. Bitartean talde berriak agertzen dira. 2006an Sevillan genero indarkeriaren kontra dauden gizonen lehenengo manifestaldia egiten da (Alonso eta López, *Ibid.*). Euskal Herri mailan, gizon taldeek hasiera batean ez ziren ikusgarriak izan, Euskal herrialdean bazirelako beste arazo sozio-politikoak arreta kentzen zutena. Horregatik, Euskal Herriko lehenengo gizonen taldeak 80. hamarkadan boluntarioen eskutik sortu egin ziren (Odriozola, 2008). Bilboko hiriaren kasua, 1990eko irailean, zortzi gizonen taldea sortzen da Fernándo Villadangosen eskutik (Lozoya, Bonino, Leal eta Szil, 2003). Hala ere, gizonen taldeei buruz hitz egitean, taldeak desberdindu behar dira. Berdintasun gaia modu desberdinean lantzen delako gizon taldeen barruan; batzuk berdintasunaren alde agertuz eta beste batzuk kontran. Kontrako taldeek haien pribilegioen mantenua helburua bezala bilatzen dute (Alonso eta López, 2015). Banaketa hau hobeto ulertzeko, Bonino (in Lomas, 2003) autoreak gizonen bost talde mota desberdintzen ditu eta honako hauek dira haien

mugimenduen deskribapena: Mugimendu mitopoetikoa 1980. urtean jendarte anglosaxoietan sortu zen, nahiz eta bere goraldia 90. hamarkadan Estatu Batuetan izan. Mugimendu honen lider famatuena Robert Bly izan zen. Espainiari dagokionez, mugimendu honek ez du arrakasta handirik izan. Mugimendu honen barruan gizon zuriak, heterosexualak eta erdiko klasekoak posizionatzen dira. Jarraitzaile hauen kezkak; gizonek autoritatearen galpena, "gizonen feminizazioa" eta "aita" tradizionalaren figuraren galera dira. Ez dira emakumeen aldaketen kontra jartzen, ezta feminismoaren alde ere ez. Rol tradizionalak defendatzen dituzte eta ez dute genero desberdintasuna gaiari buruz eztabaidatzen. Gizonen eskubideen mugimenduaren kasuan, ingelesez *Men's Rights* izenarekin ezagutzen direnak, gizonen talde desberdinetan nahasten dira: berdintasunaren aldeko gizonak eta Patriarkatua defendatzen dutenak. Mugimendu hau 80. hamarkadan Estatu Batuetan sortu zen eta ondoren, Europara hedatu egin zen. Mugimendu honen iritziz lege berriek ez dute gizona kontuan hartzen. Mugimendu honen barruan aurkitzen diren gizonek haien eskubideei buruz hitz egiten dute, baina argi uzten haiek feminismoaren biktimak direla. Ideologia neomatxista eta fundamentalista jarraitzen dute. Emakumeak lortutako aurrerapenak kritikatzen dituzte, uste dutelako feminismoak diskriminatzen diela. Espainiaren kasua aztertuta, gizon talde mota hauek goraldia izan dute sare sozialetan eta blog desberdinetan non anonimotasuna mantentzen dute. Hauen adibideak; Slowlane FREE eta NCFH Estatu Batuetan eta APAMATS eta Father's Rights (Madril) Espainian. Terapia maskulinoaren mugimenduaren kasuan, 80. hamarkadaren amaieran sortu egin zen "maskulinitate krisiaren" ondorioz. Maskulinitatearen krisiak ekarri zituen eztabaida anitzen ondorioz, mugimendu hauek baieztatu zuten definizio berriak eraiki behar zirela gizona izatearen eta maskulinitatearen kontzeptuan. Maskulinitateen inguruan hainbat teoria eta praktika psikologikoak eta terapeutikoak eman ziren. Terapia maskulinoaren mugimendua mugimendu antisexista edo profeminista kontuan hartzen ditu bere garapenerako. Baina, bere helburu nagusia ez da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, baizik eta gizon identitatearen eraikuntza berria. Gizon berrien erretorikaren mugimendu mediatikoaren kasuan, azken urteetan Mc Mahon aitzindariarengandik, batez ere herrialde aberatsetan eta garatuetan, sortu egin den mugimendu berria da. Mugimendu honek gizon sentibera berria, aitatasun berria eta familiako gizonaren ereduak errebindikatzen ditu Patriarkatuaren modernizazioan oinarritzen den heinean, mugimendu honen helburua estrategia mediatikoak sortzea da. Mugimendu antisexista edo profeministaren kasuan, Estatu Batuetan, Erresuma Batuan

eta Australian sortzen da 70. hamarkadan. 90. hamarkadan profeminista izena hartzen du. Maskulinitate eredu hegemonikoaren kontra eta homofobiaren kontra errebindikatzen da. Maskulinitate tradizionalista kritikatzen du, honakoa deseraikitzen eta genero indarkeria salatzen. Hasieran mugimendu honetan parte-hartu zuten gizonek zientzia sozialekin lotura estua zuten. Mugimendu honen diskurtsoa emakume eta gizonen Patriarkatuaren opresioan zuzenduta dago. Mugimendu honen barruan aurkitzen diren gizonek planteamendu feminista sostengatzen dute, emakumeen aldaketak aldarrikatuz eta opresioa salatuz. Ez da erraza zehaztea noiz hasi ziren gizonen mugimenduak berdintasunaren alde Espainiar Estatuan, gaur egun oraindik ez direlako gai horri buruzko ikerketa akademikoak existitzen. Kaufman (in Arango *et al.*, 1995) autoreak mugimendu honen sorrera Espainiar Estatuan 80. hamarkadaren amaieran eta 90. hamarkadaren hasieran finkatzen du. Talde txikien artean bakoitzak bere ibilbidea sortu zuen, beste taldeek egiten zutena jakin barik. Gaurkotasunean ezin dugu gizon talde handiei buruz hitz egin, baina bai esperientzia batzuei buruz, talde batzuei buruz eta sare batzuei buruz, hauek handitzen doaz sare sozialen laguntzarekin. Talde hauen definizioa konfusioz beteta dago, hau da, talde terapeutikoak, gizonentzako tailerrak, gizonentzako dinamikak edo ikastaro mistoak bezala definitzen direlako, definizio argia izan barik (Lozoya, Bonino, Leal eta Szil, 2003). Batzuk aipatzearen:

Nazioarte mailan: Campaña del Lazo Blanco (White Ribbon Campaign), NOMAS (Estatu Batuak), AChilles Heel (Erresuma Batua), Men for Change. JASOM (Noruega), XY (Australia), Men for Change (Kanada), Les Traboules (Francia), Pfefferprinz (Alemania), Les hommes barrés (Suiza), Vomim cantro la violencia (Italia), Latinoamérica a Cantera (Nicaragua), CORIAC (Mexico).

Espainia mailan: Stopmachismo (Madril), Hombrecitos de Madera (Jerez), Sopa de hombres (Bartzelona), Foro de hombres por la igualdad (Sevilla), Codo a codo Hombres igualdad (Palencia), Grupo de hombres (Granada), Homes igualitaris (Katalunia), Prometeo Hombres por la Igualdad (León), Hombres de Canarias por la Igualdad, Hombres Gallegos por la igualdad eta abar.

Beste aldetik, badira gizon sare desberdinak sortu egin direnak: *Gizon Sarea* (Euskal Herrian), Red estatal de hombres por la igualdad. Edo AHIGE (Asociación de hombres

por la igualdad de género) bezalako elkarteak. Red Europea de Hombres Profeministas, Red Chilena de Masculinidad, White Ribbon Campaign Kanada.

### 3.4.2. Bizkaiko gizonen taldeen azterketa

Atal honetan Bizkaian aurkitzen diren gizonen taldeetan oinarrituko gara, berdintasunezko taldeetan, feministak eta antisexistak direnak (Pérez, 2019). Gizonen talde feministak eta antisexistak bezala definitutakoak komunean dituzten ezaugarri batzuk honako hauek dira: gizonen konpromisoa aldaketa pertsonalean, genero indarkeriaren aurkako borroka, pertsonen zaintza modu berdinzalean onartzea, maskulinitate eredu berrien aplikazioa eta gizonen konpromiso soziala arlo publikoa aldatzeko (Bacete, Bergara eta Riveira, 2008).

Bizkaia mailari dagokionez, badira gizon talde ez mistoak probintzian aurkitzen direnak. Hauen azterketa sakontasunean egiteko, deskribatu egingo dira: *Piper Txuriak* gizon taldeari dagokionez, gizonen arteko adiskidetasun gune bat da, Bilbo hirian kokatuta dagoena eta 2008 urtean sortu zena, baina 2009an izan zen erakunde bezala osatu zenean. Talde hau maila lokalean burujabetzen eta auto kudeatzen da. Talde honen barruan, sexismoak gizonengan dituen eraginak aztertzen dituen gizon kolektiboa aurkitzen da, haien bizipen propioak, gertaerak, gizon izatearen esanahiak eta ondorioak partekatzen dituzte, hau guztia gizon bakoitzaren erritmoak errespetatuz eta haien arteko sostengua sortu. *Piper Txuriak* taldeak gizonei maskulinitate Patriarkala ez den ereduarekin bizitzeko aukera ematen die. Feminismotik eta maskulinismotik hausnarketa propioak garatzen dituzte, kontuan hartuz jendarte sexistan bizi direla, jaiotzaz hezitu dituenak. Talde barruan kontzientziazio eta heziketa jarduera desberdinak bultzatzen dituzte, zeinak emakumeen askatasun politikak babesten dituztenak. Zapalkuntza mota guztiei uko egiten diote. Topaketa gune desberdinak antolatzen dituzte, hauetan elkarrizketarako esparruak eta pertsonen arteko zubiak sortzen. Bizkaia mailan erreferentziazko gizonen taldea da. *Piper Txuriak* izenari dagokionez, horrela sortu zen (Piper Txuriak, 2019):

> "Guindillas o Piperrak por ser un producto natural, de siempre y de ahora, con variedad típica vasca pero también con hermanas por todo el mundo. Son un poco picantes, pero las buenas "enganchan" por su suavidad. Blancas o Txuriak porque este color tiene una connotación positiva asociada con varios ideas que nos gustan;

frescura, sinceridad, confianza, conceptos simples. Además nos hacemos eco del movimiento del lazo blanco promovido a nivel europeo por el movimiento de hombres en contra de la violencia de género” (Piper Txuriak, 2019).

*Zipriztintzen* gizonen taldeari dagokionez, Ermuan kokatzen den gizonen talde ez mistoa da, 2008. urtean sortu egin zen genero indarkeria erailketa baten ostean eta hamabi urte daramatza lan egiten. Gizonen talde honen barruan bi motatako ekintza nagusiak aurrera eramaten dira; alde batetik, kanpoko ekintzak (tailerrak, zineforum, antzerkiak, egun zehatzetan egindako ekintza bereziak…). Hauen helburua talde barruan aurkitzen ez diren pertsonei ailegatzea da. Beste aldetik, taldeko gizonek haientzat ekintza propioak sortzen dituzte. Taldeko kideekin enpatizatzea, feminismoaren eraikuntzan eta maskulinitateen dekonstrukzioan oinarritzen direnak. Ermuan herriko emakumeek sortutako Emakumearen Etxea existitzen da. 2008an genero indarkeria erailketa gertatu zenean, herriko gizonei gonbidatu zitzaien batzarrean parte-hartzera. Batzarrean jakin izan zuten Espainia mailan hasiak zirela gizonen taldeak sortzen, beraz hauek bere talde propioa sortzea erabaki zuten, *Zipriztintzen* izenarekin. Zeinak zipriztindu hitzak esaten duen moduan “salpicar” esan nahi du. Ermuako herriko jaietan ur botilak atera zituzten “Si eres hombre, mójate por la igualdad” esloganarekin. Horrek *Zipriztintzen* “salpicando” taldearen izena jartzeko ideia eman zien (Zipriztintzen.wordpress.com).

*Gizon Ekimena* taldeari dagokionez, Santurtziko herrian aurkitzen den gizonen taldea da. Talde honen helburu nagusiena sexismoaren kontra eta berdintasunaren alde borrokatzea da. Aurreko biak bezala, 2008. urtean sortu egin zen. Sortzearen ondorioa Santurtzin gertatutako genero indarkeria erailketa bat izan zen. Urte horretan baziren gizonak maskulinitateari buruzko gaiez hitz egiteko biltzen zirenak, etxe pribatuetan eta maila pertsonalean, haien sentimenduei, zirrarei eta hausnarketa propioei buruz hitz egiteko. Santurtziko erailketa gertatu zenean, herrian zeuden gizon guztiei deialdi bat egin zitzaien, egoera aldatu beharra zegoelako. Gizonen kontzentrazio bat sortu zuten, 100 gizon bildu zituenak. Hortik aurrera *Gizon Ekimena* taldea sortu zen. Taldearen izena manifestaldian kartelean erabilitako hitzetatik atera zuten, taldearen izen ofiziala bihurtuz (Gizon Ekimena, 2010).

*Roma Eraldatuz* proiektuari dagokionez, AMUGE (Asociación de Mujeres Gitanas de Euskadi) euskaraz Euskadiko Emakume Ijitoen elkartean kokatzen da, Bilboko hirian. 2003. urtean AMUGE elkartea sortu egin zen ijito elkartearen eskubideak defendatzeko eta eraldaketa integrala emateko. AMUGE elkartea emakumeen aurka izandako jarrera biolentoen aurrean sentsibilizazioa eta ekintzak garatzen, bultzatzen eta sustatzen dituzte. AMUGE elkartearen barruan 30 emakume parte-hartzen dute. 2015. urtean Euskal Autonomia Erkidego mailan lehenengo entitate ijitoa izan zen maskulinitate gaiak jorratzen dituen proiektu bat sortu zuena eta gizon ijitoei zuzenduta dagoena. *Roma Eraldatuz* proiektua emakume ijitoen aldetik egindako ekimen bat da, emakume hauek hauen bikotekideekin lan egitea proposatu zuten. Horregatik, gizon ijitoengandik berdintasunean formatzeko interesa pizten da. Berdintasun erreala osatzea helburua du, ikuspuntu maskulino ez androzentrikoa izaten eta gizonekin lan egiten maskulinitate eredu berriei buruz. *Roma Eraldatuz* proiektua komunitate ijitoa Jarraitasun 2014-2016 Plan Operatiboan Komunitate Ijitoaren Estrategia Nazional Inklusiboan 2012-2020an sartzen da (Asociacionamuge.com).

CHICO *Grupo de Hombres de la Cooperación Vasca* taldeari dagokionez. 2009. urtean sortu egin zen. Euskadiko Gobernuz Kanpoko Erakundeen artean, 25 taldeetatik 25 gizon elkartzeko ekimena sortu zen. CHICO taldeak hasiera batean helburu bezala kooperatibaren espazio pertsonalean, sozialean eta kolektiboan genero ikuspuntuarekin gizonen artean biltzea zen. Talde honek beste herrialdeetako gizonen taldeekin bildu izan da. Talde honen barruan aurkitzen diren kideak Gobernuz Kanpoko Erakundean lan egiten duten kideak dira (Arjona, 2013).

AHIGE *Asociación de Hombres por la Igualdad de Género* Estatu mailan aurkitzen den elkarte bat da. 2001. urtean Malagan sortu zen, zazpi gizonen talde bat hitz egiteko lehen aldiz bildu zenean. Bilera horretan konturatu ziren erantzunik gabeko galderak zituztela. Taldeko kideek haien buruei genero ikuspegia erantsi zioten. Hasiera batean bilerak modu informalean egiten ziren, baina hilabete batzuk ondoren Jezko Udalak gizonen aldeko programa eredu bezala hartuta, elkartea sortu zuten. Espainian gizonak subjektu aktibo bezala identifikatzen zituen lehenengo elkartea izan zen. AHIGE elkartearen barruan aldi berean gizonen prozesu pertsonalak eta biztanleria maskulinoa jendartean zuen aldaketa batera kontuan hartzen dira. Euskadin zortzi urte daramatza. Espainiar Estatuan berrogeia

hamar gizon talde baino gehiago aurkitzen dira sakabanatuta. AHIGE sortzearen helburu nagusiena gizona izanda norberaren bizipen propioei eta dimentsio sozialari beharra ematea izan zen. Oinarrizko helburuak jendarteak sortzen duen diskriminazio estrukturalaren kontra borrokatzea eta berdintasun posizioetara gizonen aldaketak faboratzea dira. Helburu hauek modu kolektiboan eta erantzukizun indibiduala eta kolektiboarekin ematen dira. Elkarteak aurrera eramandako ekintzak modu indibidualean, esku-hartze tekniko-profesionalean eta eragin sozialarekin ematen dira. AHIGE elkartearen hitzetan: "Nuestra asociación es, en sí misma, un intento de organización de hombres que superen en sus estructuras y modos, el modelo de competitividad y poder machistas" (Ahige.org).

*Gezi* 2017ko abenduan Portugaleten sortu egin zen gizonen taldea da. Gizonen talde honek Portugaleteko Aisialdi Saretik sortutako proiektu bat da, horregatik *Gezi* taldeko partaide batzuen kasuan aisialdiko begiraleak dira, besteak Portugaleteko auzotarrak. Talde barruan 20-36 urteko adin tartea duten barruan hamaika kideek parte-hartzen dute. Komunitateari garrantzi handia ematen diote lan egiteko espazio aproposa bezala bihurtuz. Ez dira gaur egungo eredu Patriarkalarekin identifikatuta sentitzen eta feminismoa eraldaketarako aukera bat bezala ikusten dute sareko lana sortzen duten heinean. Zaintzaren eta komunikazioaren metodologian oinarritzen dira, zeina metodologia hori partekatzeko erreminta bezala elkarrizketa erabiltzen dute. Talde honen barruan aisialdi eta hezkuntza arloan maskulinitateei buruz hausnartzen da. Hiru ekintza nagusi aurrera eramaten dituzte: hausnarketa eta ekintzen burutzea; formakuntza indibiduala eta taldekoa eta azkenik, hezkuntza eta hezkidetza (Kiribil Sarea, 2018).

### 3.4.3. Bizkaiko taldeek barrutik emandako esku-hartze sozialak.

Gizonen taldeen barruan ematen den esku-hartze sozialaren ikuspuntu kulturartekoa kontuan hartuta, helburu bezala talde hauek etnozentrismoa, estereotipoak eta aurreiritziak ezabatzea helburua dute (Alonso eta López, 2015). Azpiazu (2017) autoreak uste du gizonak talde feministetara hurbiltzeko beharrezkoa dela irakurtzea, pentsamendu feministara aurreratzea, feminismoak sortzen dituen eztabaidetan parte-hartzea eztabaida horren boterea eskuratu barik eta gizonei zuzenduta dauden sentsibilizazio neurriak onartzea. Atal honetan Bizkaiko taldeek barrutik ematen dituzten esku-hartze sozialak identifikatu eta aztertuko dira. Horretarako eta ulerpena errazteko aurreko atalean aipatu

izan diren taldeak erreferente bezala hartuko dira eta hauen esku-hartzea sakontasunez aztertuko da.

*Piper Txuriak* taldearen kasuan, Bilbo hirian eta Bizkaia mailan erreferentziazko gizonen taldea da, tailerrak, hitzaldiak eta ikastaroak aurrera eramaten dituzte. Tailer eta ikastaro hauen barruan teknika aktiboaz baliatzen dira, hau da, bizipen propioekin lotuz, teknika desberdinetan baliatu jarduerak eta praktikak dinamizatzeko, pertsona bakoitzaren parte-hartzea eta integrazioan erraztasunak jartzen, taldearen barruan malgutasuna gizonen erritmoetara eta ezaugarrietara egokituta. Honetaz aparte, bestelako proiektuak dituzte, hauen artean aipagarriak: berdintasunaren aldeko euskal gizonen sarean parte-hartzen dute *Gizon Sarea* deiturikoa eta manifestu propioak argitaratzen dituzte. Bestelako erakundeentzat tailerrak burutzen dituzte, zeinetan maskulinitateen gaia sakontasunez jorratzen da (Piper Txuriak, 2019).

*Zipriztintzen* gizon taldeak esku-hartze desberdinak burutzen ditu: *klown* tailerra, zeinetan antzerkiaren bidez maskulinitate hegemonikoa zalantzan jartzen du; antzezlan desberdinak; martxoak 8ko greba feministan parte-hartu; hitzaldi desberdinetan beste gizon taldeek antolatutakoetan parte-hartu; tailerrak eskaini; Ermuako Emakumearen etxean hitzaldiak eman eta *Gizon Sarea*ren barruan parte-hartu, zeinetan 2017an Ermuan gizonen topaketa bat antolatu zuten (Zipriztintzen.wordpress.com).

*Gizon Ekimena* taldeari dagokionez, Santurtzin presentzia handia du. Talde hau bere hasierako urteetan, 2008. urtean Santurtziko herrian ekintza aktiboetan, manifestaldietan eta tailer desberdinetan parte-hartu zuen. Gaur egun, taldea martxan dago, baina hauen helburu nagusiena taldea sendotzea da; talde barruko eztabaidak, dinamikak eta tailerrak osatzen (Gizon Ekimena, 2010).

*Roma Eraldatuz* AMUGE elkartearen barruan aurkitzen den gizon ijitoen proiektuari dagokionez, elkartearen barruan 30 gizonen taldearekin, bitan banatuz maskulinitateei buruz hitz egin eta eztabaidatzen dute. Maila pertsonalean formatzen dira, bitartekaria den pertsona batekin; hauen identitatea, jarrerak eta baloreak zalantzan jarriz. Hitzaldi desberdinetan parte-hartu dute gizonen maskulinitateei buruz zuzenduta daudenak. Proiektu honetan aurrera eramaten diren estrategiak kontuan hartzen dituzte komunitate

ijitoarekin lan egiten dela, horregatik maskulinitateen gaiak jorratzen direnean gizon ijitoa izatearen identitatean oinarritzen dira (Emakunde, 2017).

CHICO *Grupo de Hombres de la Cooperación Vasca* taldeak arlo pertsonala eta intimoa garatzen du, honetatik abiatuz errealitatea aldatzeko helburuarekin, kontuan hartuz, pertsonala ere politikoa dela. Erabiltzen duten metodologia zirkuluan gizon bakoitzak bere zirrara eta sentimendu pertsonalei buruz hitz egitea da. Talde barruan eztabaidatu, teorikotik praktikora formatu, esperientziak partekatu eta maskulinitate berrien garapena bultzatzen dute (De Lucas, d.g.).

AHIGE elkarteari dagokionez, 2016. urtetik aurrera ekintzen txosten bat garatzen du. Ekintza hauek arlo desberdinetan garatzen dira; pertsonalean, tekniko-profesionalean, sozialean. Arlo bakoitzaren arabera aurrea eramandako esku-hartzeak honako hauek dira: hitzaldiak, tailerrak, webgunea, mintegiak, ikastaroak eta egun berezietan ekitaldi bereziak. Elkarte honek PPiiNA elkartearekin eta MenEngage erakundearekin aliantzak sortu ditu bere esku-hartzean (Ahige.org).

*Gezi* Portugaleteko Aisialdi Taldeak eramaten duen gizonen taldea Kiribil Sarearen barruan parte-hartzen dute. Gizonen maskulinitateei buruz hitz egiteko mahai desberdinetan parte-hartu dute, irrati saio bat burutu dute eta Portugaleteko Kiribil Sarearen barruan maskulinitate berriei buruzko ekintza desberdinak sortzen dituzte gazteei zuzenduta daudenak eta Portugaleteko herriari. Portugaleteko jaietan presentzia handia duen talde bat da. Egun berezietan biltzen dira feminismoaren alde borrokatzeko (Kiribil Sarea, 2018).

Honako hauek dira Bizkaia mailan aztertutako eta identifikatutako gizonen talde ez mistoak eta barrutik ematen dituzten esku-hartze sozialak. Talde guztiek filosofia feministak planteatutako teoria jarraitzen dute, nahiz eta bakoitzak bere taldearen egokitzapenera egokituta egon.

## 4. Analisia

Banakako elkarrizketetan eta talde bileretan lortutako informazioa eta datuak aurkezteko analisi atalari ekingo zaio. Jaso izan den informazioa faktore desberdinen artean banatu izan da, honen ulerpena errazteko. Honako hauek dira aukeratutako faktoreak: maskulinitate eredu berrien pertzepzioa gizonengan, maskulinitate berrien eta feminismoaren arteko harremana, gizonen pribilegio eta ahultasunei buruz egindako hausnarketak, Bizkaiko gizon-taldeen barruko ezagutza eta funtzionamendua eta azkenik, Gizarte Langintzatik egindako esku-hartzeak gizonekin lan egiteko.

### 4.1. Maskulinitate eredu berrien pertzepzioa gizonengan

Analisiaren azpiatal honetan gizonen pertzepzioa aztertu egingo da maskulinitate eredu berriei dagokienez. Marko teorikoaren atalean azaldu izan den bezala gaur egun XXI. mendean badira gizonak ez dutenak bat egiten eta ez daudenak ados Patriarkatuak ezarritako maskulinitate ereduarekin. Gizon hauek ez dira eroso sentitzen maskulinitate tradizional hegemonikoak atxikitu dien paperarekin. Honako hauek izan dira aipatutako ideiak: "*Lo nuevo en el siglo XXI, son las circustancias y el contexto*" ($E_1$), "*creo que el hombre en el siglo XXI, es un modelo diferente. Es romper desde los modelos binarios y desde el modelo heteropatriarcal actual*" ($TBZ_4$), "*es la oportunidad para que sea el primer siglo en el que podamos acercarnos a la igualdad y nos toca hacer algo*" ($TBGE_3$). Hala ere, elkarrizketatutako gizonei ez zaie erreza iruditu XXI. mendeko maskulinitate eredu berriak definitzea. "*No puedo dar una definición de qué es ser hombre aparte de características físicas o genéticas*" ($TBGE_1$), "*Ser hombre varón en el siglo XXI a veces se me hace un reto*" ($TBGE_2$). Maskulinitate eredu tradizionala ukatu eta eredu berrien bila dauden gizonak trantsitu egoeran aurkitzen dira. Trantsiziozko egoera maskulinitate tradizionalaren identitatean eragina eta aldaketa emateko aukera bat da, "*me gustaría que fuera un siglo en lo que los hombres recuperemos más nuestra humanidad*" ($TBGE_1$), edo Gizon Ekimena taldeko kideak aipatzen duen moduan:

> "*Estamos en un momento en el que ya no sirven actitudes y comportamientos que se han dado durante muchos años y nos ha pillado igual en ese momento de que tenemos la información, tenemos la experiencia y tenemos un montón de cosas que nos están empujando a que esto no puede seguir así, entonces nos toca, la patata caliente la tenemos en las manos*" ($TBGE_2$).

Maskulinitate hegemoniko toxikoak femeninotzat hartzen diren ezaugarriak ezeztatzera bultzatu izan ditu gizonak. Hauek zaintza, enpatia eta maitasuna bezalako ezaugarriak alde batera utziz, "*durante un montón de tiempo, no siempre, hemos asumido de alguna forma rechazar algunas características que nos hacen humanos; sentir amor, sentir empatía, cuidar, ser vulnerables.*" ($TBGE_1$). Hala ere, historian zehar gizon feministak egon dira, "*todos los modelos de masculinidad se han dado en cualquier momento de la historia*" ($E_1$). Zeren eta gizona izatea ez du esan nahi maskulinitate eredu bakarra jarraitu behar dela, maskulinitateak pluraltasunarekin eta aniztasunarekin aztertu behar dira, "*romper desde los modelos binarios y desde el modelo heteropatriarcal actual*" ($TBZ_4$), "*gracias a esta flexibilidad no existe una categoría de hombre, no existe una definición de hombre tan estancada como la que podía existir en otras épocas*" ($TBZ_2$). Feministek aldarrikatutako maskulinitate eredu berrietan gizonen presentzia oinarrizkoa da berdintasunaren aldeko borrokan.

> "*Los primeros años del siglo XXI vienen acompañados de un nuevo impulso de las mujeres, cada vez más, nos están interpelando a los hombres como sujetos necesarios para lograr sus objetivos, necesitando de nosotros un cambio en nuestras posturas y comodidades*" ($E_2$).

Hala ere, badira Santiago Abascal, Donald Trump eta Vladimir Putin bezalako gizonak oraindik maskulinitate hegemoniko toxikoaren eredu tradizionalistara gogor eusten diotenak, "e*stá habiendo un paso atrás en modelos de masculinidad que puedan representar como el de Santiago Abascal, Donald Trump, Bolsonaro*" ($E_1$), "*tampoco es casualidad el repunte de la extrema derecha con un discurso claramente misógino en cuyos argumentos se están escudando muchos hombres*" ($E_2$).

Laburbilduz, gizonak maskulinitate eredu zaharkitu batetik eredu berri baten bila daude, honek ziurtasunik eza eta deserosotasuna eragiten die, hala ere, kontuan hartu behar da betidanik eredu anitzak egon direla. Berdintasunean gizonen presentziarekin aurrera pausuak ematen dira, nahiz eta aldaketak onartu nahi ez duten gizonen irtizia egon.

## 4.2. Maskulinitate berrien eta feminismoaren arteko harremana

Feminismoa maskulinitateak kolokan jarri dituen ideologia da, "*el feminismo viene a proponer el cuestionamiento del rol de las mujeres, pero eso impacta necesariamente en el rol que jugamos los hombres*" ($E_1$), Zipriztintzen taldearen esanetan: "*nosotros mismamente mamamos del feminismo y somos un grupo todo de hombres no mixto*" ($TBZ_2$). Hala ere, badira gizonak ez direnak eroso sentitzen feminismoarekin, hauek feminismoarekin saminduta daude eta sistemak mindu egin dienaren ustea dute. Aurreko atalean, ikusi izan den bezala Trump, Putin, Abascal eta Bolsonaro bezalako gizonek diskurtso misoginoa erabiltzen dute feminismoak dituen tresnak ezabatzeko ahaleginean. Nahiz eta gizonekin egindako lana zaila izan, beharrezkoa da. Aldez aurretik feminismotik galdetu behar da zein den aztertu beharreko subjektu politikoa eta ondoren, gizonei galdetu behar zaie zeintzuk diren haien motibazioak. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna emateko beharrezkoa da gizonen kolaborazioa. "*El papel de algunos hombres ha sido clave en el desarrollo del concepto feminista*" ($E_1$). Feminismoak norberaren identitate propioa zalantzan jartzen du, "*con ese cuestionamiento en parte es lógico que haya hombres que niegen los discursos feministas o que se sientan violentados*" ($TBZ_2$).

Gizon batzuen kasuan, hauek ez dakite zer egin ezta nola parte-hartu feminismoaren ideologiaren barruan. Hiru erantzun mota ematen dira feminismoari buruz gizonei galdetzen zaienean: galdera entzun ez dutenarena egin, galdera haiekin bat ez datorrela adierazi eta galdera beste era batean erantzun. Nahiz eta gizonen gehiengoak berdintasunaren alde publikoki posizionatu, oraindik ez dute argi zeintzuk diren feminismoak eman ahal dizkien onurak, *"el feminismo es muy incómodo para muchos hombres, puesto que nos muestra una realidad evidente pero cuyas soluciones no son sencillas y pasan por una honesta revisión personal que nos supone reconocer más cosas de las que nos gustaría*" ($E_2$).

Burututako elkarrizketetan zehar, gizon desberdinei galdetu egin zaie gizonen inklusioari buruz feminismoaren barruan. Honako hauek izan dira aipatutako erantzunak: "*El feminismo lucha en todo momento por un mundo más digno en el que no sólo las mujeres, sino todas las personas se desarrollen en libertad y en armonía con la naturaleza*" ($E_2$), beste batek aipatzen du: "*el feminismo nos ha abierto un poco los ojos con teorías que*

*van más allá de cuestionarnos, ofrece alternativas, hay que ver el feminismo como lucha global que ganamos todos, es buena tanto para mujeres como hombres*" (TBZ3), edo "*uno de los objetivos de los cursos feministas es violentarnos y hacernos darnos cuenta de que nosotros somos normalmente los violentos*" (TBZ2). Aldiz, "*No ha habido una narrativa feminista poderosa que incluya el impacto del sexismo en los hombres*" (E1), honekin bat: "*yo si que estoy de acuerdo con el feminismo. Lo que pasa con el discurso feminista tampoco creo que sea muy concreto, lo veo muy variado, hay más de un discurso, no lo tengo tampoco muy claro*" (TBGE3), badira gizonek ideia berdina azaltzen dutena: "*yo creo que el mensaje feminista* [buscar la igualdad entre géneros] c*omo tal, el mensaje de base, lo aceptamos. Luego ocurre que por el camino se va manchando con tendencias, con criterios, con interpretaciones, con mezcla de opiniones*" (TBGE2), "*si desde el feminismo no sabemos ver esto y separarnos un poco de la parte emocional dejaremos a un lado a los hombres*" (E1), edo gizon batek aipatzen duen moduan: "*Sensación de andar pisando huevos*" (TBGE1). Aurreko iritziek feminismoak maskulinitate berrien gaian dituen ahultasunak deskribatzen ditu. Gizonek espazio feministak mesfidantzarekin begiratzen dituzte eta espazio horien barruan baimena eskatzera ailegatu dira, "*pedir permiso para hacer reuniones*" (TBGE2), Santurtziko gizon taldeko kide batek aipatu zuen aliantza sortu nahi izan zutenean herriko talde feministarekin ez zutela interesa somatu "*a nivel exterior me queda la sensación de que las mujeres van un poco a lo suyo*" (TBGE2), "*a nivel teórico el feminismo incluye a los hombres. A nivel practico la gran mayoria de las mujeres también incluyen a los hombres. Creo que hay sectores dentro del feminismo, que no, porque tienen otra visión*" (TBGE1). Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea feminismoa emakumeak bezala pertsonaren baitan desberdina dela, E1 elkarrizketatuak: "*¿Hay alguien qué tenga el feministrómetro?*" galdera azaleratzen zuen.

Azpiatal hau laburbilduz, kontuan hartu behar da maskulinitate berrien gaia feminismoaren ibilbidean nahiz eta berria ez izan, duela gutxi arte garatu ez den gai bat izan dela, zeinetan ahultasunak eta hutsuneak erraztasunez identifikatzen dira. Elkarrizketatutako gizonek argi dute feminismoa beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko. Bestalde, gizon bakoitzaren egoera alde batera utziz, gizonen talde barruan parte-hartzen duten gehiengoak komunean uste dute gizonekin feminismoaren aldetik inklusio nagusiagoa beharrezkoa dela.

**4.3. Gizonen pribilegio eta ahultasunei buruz egindako hausnarketak**

Gizonen pribilegioak eta ahultasunak deituriko azpiatal honetan, elkarrizketatu izan diren gizonen iritzia kontuan hartuko da eta hauek duten ikuspuntua gizonen pribilegioei dagokienez, hau da, pribilegio horiek ahultasunak bezala edo indargune bezala definitzen diren aztertuko da.

Alde batetik, Salazar (2012) eta Bacete (2017) autoreek defendatzen dute berdintasuna lortzeko beharrezkoa dela gizonek dituzten pribilegioen galera ematea. Beste aldetik, Bordieu (2005) eta Azpiazu (2017) autoreek pribilegio hauek Patriarkatuaren kosteak bezala identifikatu egin dituzte. Argi utzi behar da gizonen pribilegioak estrukturalak direla, gizonak jaiotzen diren unetik pribilegio hauen erabilera dute, ez dira merezimendu bereziarengandik edo norberaren baldintza propioengandik eskuratu. Pribilegioak kulturalki gizonei eman zaizkien zati bat da. Bizkaiko gizonen talde barruan askotan eztabaidatu den gai bat da, pribilegioak identifikatzean aldi berean, hauen ahultasuna identifikatzen delako. Autore batzuek pribilegioak koste eta arrisku bezala identifikatu dituzte. "*La pérdida, renuncia o cuestionamiento de los privilegios se basa en la consecuencia lógica de la consecución de la igualdad (...) pero yo no creo que la renuncia al privilegio esté necesariamente ligada a los procesos de transfomación*" ($E_1$), "*esos privilegios y esas actitudes que nos mantienen, son los que realmente pues deberíamos cambiar y son los que nos están cuestionando hoy y apelando a cambiar*" ($TBZ_2$). Pribilegioen galerarekin ikasitako ideologia hegemonikoa galtzen da, hau da, "*perder muchos privilegios, es como perder toda la ideología de la extrema derecha*" ($TBZ_3$). Aldiz, beste gizon batek honakoa aipatzen du: "*no estoy de acuerdo con algunas posiciones que dicen: con la igualdad los hombres pierden. Son posiciones que se dicen desde hombres airados y desde algunas posiciones feministas*" ($TBGE_1$). Pribilegioak dituzten gizonak naturaltasunez onartzen dituzte, "*muchos hombres están muy cómodos*" ($TBZ_1$), arriskuak ikusten ez dituztelako "*no es fácil, ya que normalmente siempre se habla de privilegios y de posición de poder, pero tenemos que llegar a explicar el regalo envenenado que suponen estos privilegios*" ($E_2$).

Atal honen laburpena zera da; gizonek dituzten pribilegioak errepasatu behar dira, are gehiago, maskulinitate hegemonikoaren jarrerarekin bat egiten dutenen kasuan. Hala ere, elkarrizketatutako gizonek ez dute pribilegioen galera irabazten den kontzeptua bezala

identifikatzen, baizik eta egoera zehatzen aurrean boterea ematen dizkieten jarrerak dira, zeinak haiei buruz hausnartu behar da eta norberak identifikatu behar ditu. Lehenengo pausua existitzen direla onartzea delako.

### 4.4. Bizkaiko gizon-taldeen barruko ezagutza eta funtzionamendua

Gizonen taldeak bizipen espazioak, genero berdintasunaren hausnarketa maskulinoak, komunikazio espazioak, gizonari barnetik hausnartzeko aukera ematen dion lekua eta topaketa gune ez mistoak dira (Alonso eta Aranguren, 2019). Azpiatal honen kasuan, Bizkaiko taldeetan fokua jarri da, zehazki talde hauen barruko ezagutzan, funtzionamenduan eta taldeek abian jarri dituzten ekintzetan eta ekimenetan, lortutako informazioa, elkarrizketetan eta talde bileretan azaleratuz. Gizonen taldeak metodologia feministan oinarritzen dira: "*Los grupos de hombres somos necesarios, pero creo que hay una premisa previa y es que el protagonismo es exclusivamente de las mujeres*" ($TBZ_4$). Gizonen taldeek Bonino (in Lomas, 2003) deskribatu zuen mugimendu antisexista eta profeministari erreferentzia egiten diote. Eredu honek maskulinitate hegemonikoa ezeztatzen du eta honen barruan aurkitzen diren gizonek planteamendu feminista errebindikatzen dute, Espainiaren kasuan, talde txikiek sortzen dute. "*Los grupos de hombres tienen una vida muy limitada en el tiempo y van muy ligados a iniciativas institucionales*" ($E_1$). Bizkaiko taldeak erreferentzia bezala hartuta:

> "*El de Bibao [Piper Txuriak] surgió por una iniciativa que hicimos con Gizonduz; el de Portu también a través de distintas formaciones que se han hecho, iniciativas del colectivo del tiempo libre; el de AMUGE Asociación de Mujeres Gitanas también surgió por un proyecto de Diputación. Hay mujeres detrás de estos proyectos. El único grupo que ha surgido como reivindicación porpular fue el de Santurtzi, Gizon Ekimena. El resto han surgido apoyados o acompañados de grupos de mujeres*" ($E_1$).

Bizkaiko gizon talde ez mistoen barruan ekintza eta ekimen bereziak aurrera eramaten dira, hauek komuneko ezaugarriak batuz, baina aldi berea, bakoitzak bere estilo propioa landuz. Hala ere, hobeto ulertzeko elkarrizketatutako taldeak zehaztasunez aztertuko dira. *Zipriztintzen* taldearen kasuan, "*nos organizamos en torno a un encuentro quincenal*" ($TBZ_4$), bi ibilbide desberdintzen dituzte talde barruan: alde batetik "*procuramos dedicar*

*un tiempo a nosotros mismos, a preocuparnos del grupo, de reivision profunda*” ($TBZ_4$). Beste aldetik, kanpoko ekintzetan oinarritzen dira “*esas ganas de incluir la transformación nos lleva a organizar diferentes actividades*”. Aipatutako ekintzen artean; “*encuentros con gente que han tenido contacto con nosotros, cineforum, talleres*” ($TBZ_4$). Tailerren kasuan formatu desberdina erabiltzen dute “*solemos buscar algún tipo de taller que sea como interno para nosotros y luego otros abiertos al resto de la gente*”. Euskal Herriko beste taldeekin koordinatu eta elkartu izan dira, *Gizon Sarean* parte-hartzen dutelako, “*estamos en una fase de coordinación. Hasta ahora, la dinámica es de todos los años juntarnos una vez. Siempre se encarga un grupo y coge la responsabilidad de organizarlo*” ($TBZ_1$). Garrantzitsua da jakitea talde honentzat Ermuan kokatzen den Emakumearen Etxea erreferente nagusia dela: “*nuestras reuniones y encuentros son en la casa de la mujer, somos el único grupo de hombres que nos encontramos allí, no es casual, porque buscamos siempre una relación y un contraste con el movimiento feminista*” ($TBZ_4$).

> “*Todo sale de la casa de la mujer. Ellas [las mujeres] fueron las que se curraron la casa de la mujer, es de la asamblea de mujeres, de las feministas de Ermua. Zipriztintzen nació allí y seguimos después de 10 años. No podemos dejar de decirlo, porque es muy importante*” ($TBZ_5$).

Hau da, “*formarnos interiormente en la construcción de las masculinidades y luego tenemos otra parte más social*” ($TBZ_5$). Kanpoko ekintzei dagokionez, egun zehatzen ekintzak burutzen dituzte: “*aparte de nuestras actividades, tenemos otras fechas simbólicas: 17 de mayo, 28J, 8 de marzo, 25 de noviembre. Sobre esas fechas intentamos hacer algún taller o actividad dirigida a los hombres*” ($TBZ_3$) eta *Macho Maris* deituriko antzerki bat sortu egin dute “*la actuación teatral Macho Maris, trata temas de igualdad, de fraternidades, se centra en diferentes ámbitos de la igualdad, para transmitirlo con humor. Es para la gente permeable*” ($TBZ_4$). Bestaldetik badute blog bat zeinetan aipatutako informazio guztia azaleratzen duten “*tenemos un blog que utilizamos como herramienta de comunicación*” ($TBZ_4$). Erabilitako estrategiak dira:“*intentar lanzar experiencias para que participen otras personas*” ($TBZ_1$).

*Piper Txuriak* taldeari dagokionez talde barruan honakoa lantzen dute: "*hablar de tus sentimientos, preguntarnos qué tal, hablar de nosotros, hacerlo en un tono calmado sin ruido externo, escuchar de verdad, aceptar la diversidad, crear en colectivo, cuidarse, acompañarse…*" ($E_2$). Talde honek aurrekoa bezala, esku-hartzeko bi ibilbide desberdin ditu "*Piper Txuriak tiene una parte más visible y otra parte más interna*" ($E_2$). Hau da, elkarrizketatuaren esanetan: "*En la visible se hace mucho trabajo de sensibilización, charlas, talleres…*". Bestaldetik, talde barruko ekintzei dagokionez:

> "*En la parte más interna, nos juntamos aproximadamente todos los meses en sesiones de unas 2 horas. Damos mucha importancia a una ronda inicial de cómo estamos. Es una forma de romper con la dinámica productivista de los hombres, de parar, de escucharnos, de pensar qué queremos compartir con nuestros compañeros… esta ronda en ocasiones nos lleva toda la sesión. Después de la ronda, podemos tratar temas prácticos de la asociación y en ocasiones hacemos ciclos sobre temáticas concretas: prostitución, porno, diversidad sexual…*" ($E_2$).

Talde honek *Zipriztintzen* bezala *Gizon Sarean* parte-hartzen du, topaketa egun horretaz aparte urtean zehar haien arteko harremana existitzen da "*durante el año existe comunicación entre los grupos de hombres*" ($E_2$).

*Gizon Ekimena* Santurtziko gizonen talde ez mistoa, aurreko bien antzera bi ibilbidetan banantzen ditu egindako ekimenak, "*hay dos partes; una es la parte personal, reuniones personales e íntimas para intentar desaprender las cosas que habíamos aprendido y acercarnos un poco a ser unos hombres diferentes y poder desahogarnos*" ($TBGE_3$). Bestaldetik, kanpoko ekintzetan fokua jarri izan dute, nahiz eta ekintza mota hauek 2008. urtean hasi zirenean gehiagotan eman "*al principio se empezó con una dinámica de trabajo y luego se fue acomodando a nuestras ganas de como funcionar. En un comienzo estábamos más mirando al exterior; estar presentes en la calle, hacer alguna actividad*" ($TBGE_2$). Hala ere, talde honen helburu nagusiena haien arteko formakuntza da, "*por el camino nos fuimos dando cuenta que era más importante primero trabajar hacia dentro. Ahí cambió nuestra dinámica y empezamos a trabajar más hacia dentro; en lo personal, cercano, emociones, cuestionamientos, debates*" ($TBGE_2$). Kanpoko ekintzen artean "*actividades públicas, 25N, nos hemos reunido con grupos de otros sitios*" ($TBGE_3$).

Taldekide batek honakoa harrotasunez aipatzen zuen: “*en nuestro grupo se ha juntado gente de todas las ideologias: un concelgal del PP, un militante del PSOE aférrimo, gente de la izquierda abertsale, gente del mundo libertario y se han estado contando cosas íntimas unos a otros*” (TBGE$_1$). Talde honek aurreko biak bezala *Gizon Sarean* parte-hartzen du. Tailerretan aurrera eramaten dituzten erremintak honako hauek dira: “*lo que intento impartir con los hombres es no culpabilizar, desde el principio dejarles claro que nosotros no somos los malos de esta historia, no somos los culpables. Es verdad que tenemos responsabilidad en nuestros actos*” (TBGE$_1$). Edo beste taldekide batek aipatzen zuen moduan: “*a nivel personal, como ejemplo en grupos de whatsapp si lanzas alguna, por no estar de acuerdo con el tipo de humor que se comparte, siempre con moderación. Mostrar la realidad para que la gente cambie actitudes. A veces funciona*”. (TBGE$_2$). Edo “*haciendo campañas de sensibilización, generando experiencias de tú a tú*” (E$_1$) bezalako ekimenak aurrera eraman dira.

Laburbilduz, elkarrizketatutako hiru taldeek komunean dute erabilitako formatua: taldea bi ekintza motetan banatuta dago, alde batetik, taldea sendotzeko barruko ekintzak burutzen dituzte, tailerrekin, dinamikekin, haien zirrarak eta sentimenduak azaleratzen, eztabaidak egiten. Beste aldetik, talde hauek kanpoko ekimenak burutzen dituzte, gehienetan egun berezietan eta haien bizilekuan antolatuta daudenak. Hala ere, hirurek *Gizon Sarearen* barruan parte-hartzen duten, zeinetan aukera dute beste taldeen artean ideiak, ekintzak eta bizipenak partekatzeko.

### 4.5. Gizarte Langintzatik egindako esku-hartzeak gizonekin lan egiteko

Gizarte Langintzaren helburu nagusiena pertsonei haien gaitasunak garatzen laguntzea da. Hala ere, oraindik akatsak sortzen dira generoa emakumeena bezala soilik identifikatzen denean, gizonek ere generoa dutelako. Beharrezkoa da paradigma aldaketa egitea. Ritxar Bacete (2017) Gizarte Langileak bere liburuan aipatzen du genero ikuspuntua oraindik ez dagoela praktika profesionalen barruan integratuta. Gainera, Gizarte Langile honek galdetzen du zergatik gaur egun oraindik ez daude genero ikuspegia duten prebentziozko politikak. Berarekin egindako elkarrizketan, honakoa planteatzen zuen: “*Está bien tener papel en el impacto para el crecimiento personal de esos hombres, pero claro, lo que tenemos que transformar es la política, es la definición social y colectiva de que significa ser hombres*”. Emakumeen eta gizonen arteko

berdintasuna lortzeko estrategia eta proposamen berriak sortu behar dira kolektibo maskulinoa kontuan hartzen dutenak subjektu aktibo eta inplikatua bezala, "*es importante generar ciencia política, investigar, promover conocimiento para que las instituciones puedan poner en marcha programas, estrategias y herramientas de intervención con hombres*" ($E_1$). Politika berri hauek Gizarte Langintzaren esku-hartzeak izan behar dira gizon kolektiboarekin lan egiteko. Funtsezkoa da gizonek duten botereari buruz hausnartzea. Gizarte Langintzatik oraindik ez dira formakuntzak existitzen maskulinitateen gaia jorratzen dutenak. Horregatik, garrantzitsua da formakuntza horiek Gizarte Langintzaren esku-hartze bezala bilakatzea, "*conectar lo personal con lo teórico, acompañar a los hombres a sentirse seguros. El cambio no se produce de la noche a la mañana, si no que es un proceso*" ($E_1$). Gizarte Langintzaren esku-hartze berriak arlo desberdinetan eman beharra dago; hezkuntzan, programa berrietan, mutilekin "*parte muy importante en el trabajo con los niños*" ($E_1$), maila profesionalean "*para mi es mucho más interesante generar espacios de reflexión masculina en ámbitos no convencionales; en la Ertzaintza, en los bomberos, en el Banco Santander, en directivos de grandes empresas*" ($E_1$) edo aitatasuna, emozioak, sexualitatea, osasuna eta justizia bezalako gaietan. Aurretik aipatu izan diren esku-hartzeak gaur egun gizarte politiken arloan eskasak dira, aldiz, gizon taldeek jorratzen dituzten gaiak dira. Hau da, gizonen taldeak ondo daude, baina haien inpaktua ez da uste bezain nabarmena jendartean, "l*os grupos de hombres están bien, pero con limitaciones*" ($E_1$).

Azpiatal hau laburbilduz, azaldu behar da gizonekin egindako politikek ez dutela inpaktu soziala eragin jendartean. Argi dago, emakumeek eta gizonek konpromezuak batu behar dituztela, baina administrazio publikoarengandik inplikazio handiagoa jarri behar da, berdintasunaren alde dauden politika berriak eta espezifikoak ezartzeko eta gizona kolektibo espezifiko bezala aztertzen hasteko. Esku-hartze berri hau Gizarte Langintzari dagokio, gizona generoa duen kolektibo espezifiko bezala aztertzen hasi behar da, honek dituen beharrizanak eta eskariak kontuan hartzeko eta gizonen artean agertzen diren zailtasunak, erresistentziak eta ikuspuntu androzentriko globala haiekin lantzeko.

**Ondorioak**

Ondorioen atala burutzeko, kontuan hartu izan dira lehenengo atalaren aurre galderak, hipotesiak eta helburuak.

**$H_1$:** Gizonen maskulinitate hegemonikoa krisian dago, gaur egun XXI. mendean, maskulinitateei buruzko eredu berriak ematen ari direlako gizonen artean.

Lehenengo hipotesiari dagokionez, maskulinitate hegemonikoaren krisiari erreferentzia egiten dio. XXI. mendean maskulinitate eredu berriak ematen ari dira eta honek gizonen artean nahasmena sortzen duten jarrerak eragiten ditu. Ikerketa honen bidez aztertutako datuek baieztatzen dute krisiaren fenomenoa betidanik egon dela, nahiz eta autore bakoitzak maskulinitateen krisia modu desberdinetan azaldu. Hala ere, argi dago gaur egun gizonen artean ematen ari den krisia eredu hegemonikoan oinarritzen dela. Maskulinitate hegemoniko honen krisiak gizonei trantsitu egoeran egotera baldintzatzen die, eredu berri bat sortzeko ahaleginean. Feministek gizonei eragiten dizkien hausnarketa berriak azaleratu dituzte, gizonaren papera kolokan jarri dutenak eta honek bere identitate propioa sortzeko ereduak nahastu dituenak. Gizona krisi egoeran sentitzen da berarekin bat datorren eredu baten bila dagoelako eta jendarteak eskaintzen dion eredu Patriarkalarekin identifikatzen ez delako. Ikerketa parte-hartu duten gizonen arabera maskulinitate hegemonikoaren krisia positiboa da, eredu hegemonikoa askatu behar delako, baina krisia eragiten duena zera da; eredu berriak oraindik eskasak direla, honek norberaren identitatean zalantzak, desorientazioak eta krisi egoera sortzen du.

**$H_2$:** Feminismoari dagokionez, nahiz eta inklusiboa izateko teoriak aplikatu, oraindik ez du bat egin gizonen eskaerekin, hauen ikerketak kolektibo bezala bigarren maila batean kategorizatuz.

Bigarren ondorioari dagokionez, feminismoa eta maskulinitateei erreferentzia egiten dio. Feminismoa inklusiboa izateko teorikoak aplikatzen ditu, hala ere, oraindik ez du lortu bat egitea gizonen eskaerekin, batez ere maskulinitatea birplanteatzen eta feminismoaren alde borrokatzen duten gizonekin. Ikerketaren bidez hipotesia hau baieztatu izan da. Mugimendu feministak berdintasunaren borrokan gizonen parte-hartzea eskatzen du, hala ere, errealitatean oraindik ez da parte-hartze hori guztiz ematen. Berdintasunaren aldeko

